MARTXEL MARISKAL BALERDI

azken zakatzak



Azken zakatzak

Martxel Mariskal Balerdi

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2017 Martxel Mariskal Balerdi
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2017ko apirila
Edizio hau: 2017ko apirila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Bittori Balerdi Larruskain
amari

ZATOZ NIREKIN

esnea isurtzen du ilargiak
nerabe bakartiaren
masail zurbilean
tantaka-tantaka
urtzen da denbora
gerorik ez duen
orain izoztuan

esnea isurtzen du denborak
ume jaioberriaren
aho arrosan
tantaka-tantaka
urtzen da ilargia
lehenik ez duen
orain izoztuan

lo daude
agurearen bizi tatuajeak
amets zimurtuetan
lo daude
elurtearen azal tenkatuan
bakea da haren ametsa
eta bakea da nire nekea

esnea isurtzen du ilargiak
argizarizko denboran
eta ahopean
esaten dit odolak
zatoz nirekin
zatoz nirekin
tantaka-tantaka

ISILTASUNERANTZ

mila urteko hegaztien sinkronia batean
hezurrezko mendilerroaren gainetik egin zuten
hegan
urrezko maskarez jantzita egin zuten dantzan

kolore biziko soinekoak zapiak beloak
aurpegiak haztatu zituzten arimek
huraxe zen agur esateko modua

denboraldi baterako gorputz-aldentze bat besterik
ez
amaierarik gabeko arnasketa jarraitua da-eta
izakien arteko kateamendua

haizea garenez haizearekin altxatzen gara
ura garenez urarekin elkartzen gara
milaka urtetako errekastoen sinkronia mehean

geldoa eta pixkanakakoa da benetako ulermena
horrela ehuntzen da garen unibertsoa

geure esentziak berak babesten gaitu

orain haritzezko kutxa batean
atseden hartzen ari da isiltasuna

BIHOTZAREN PREMIAK

Baltsamatutako bihotzak
ibiltzeko premia du
hesituta daukaten lau pareta zurrunekin
behingoz gatazkan aritzeari laga.
Euriak zulatu ez dituen lau bizkar dira
milaka urtetan zutik iraun duten lau harresi.
Hostoak badoaz hegan
baina sustrai errotuentzat
amets helezina da arintasuna
bizitza isolamendu gela denean.

Baltsamatutako bihotzak
ibiltzeko premia du
ahaztuko baitu bestela bere sena
eta bere izaeraren arrazoi egingo
basamortuko apar zikinak
ilunpeetako garroak eta
sitsak jandako alkandora beltzak.
Berezkoa duen barne erritmoa
berreskuratu behar du

gustuko liburua irakurtzen
ariko balitz bezala paseatuz
patxada osoan inorekin lehiarik egin gabe.
Eta irakiten ari den olioan zenbait oihartzun ito
eta mahatsondoak zaindu
eta amore ematear dagoen orkidea mimatu
eta ezpelak kimatu
eta menda-belar infusioak edan
eta sendotu zentzumenen arteko harremana
erleekin eta birigarroekin eta katagorriekin
eta ardo botilak lixiba botiletatik bereizi.

Baltsamatutako bihotzak
garraztasun urdindua garbitzeko premia du.
Eta liho-bendak ziba-korda bihurtu
uzkurdurak gaindituz
adimena eta ezpainak askatu
eta zoko goibelenak argiztatuz
erraien adarrak lorarazi.
Hegaldia izatekoa bada bizitza
kidearen eskuak berraurkitu
kidearen hatzak zaindu
beso gaiztotuak trenkatu.
Eta itsasondoko leiho irekietan

hoztasunak astindu
arnasari gozoro zaporea hartu.
Birjaio. Eta segi ibiltzen.

KANTUAN KARDAMIRUAK

Badira zine eskolak eta idazle eskolak
ez dut bereziki maite gimnasia erritmikoa
nazkatu egiten nau inguratzen eta gainditzen
gaituen
eguneroko gehiegizko dramatizazio geldiezin honek:
burezur forma duten ordenagailuak mahaietan
azeri tranpak kale-txakurrentzat
itxurazko dadaismoaren zale kartsuak
euren diseinuzko taberna eta terraza aratzetan
imintzio neurritsuez elkarri plazer mengela ematen
ezerezaren interpretazio zehatzak buruz ikasten.

Egidazue fabore bat: etzan zaitezte
hondarretan belarretan goroldioan lurrean
eta entzun ahalegin faltsurik egiten ez duen haizea
gaur oraindik gutaz barre egiten ez duen hegazti
hori.

Badira eskolak gastronomia sofistikaturako
dirutzazko unibertsitate masterrak

goi-mailako lapurretan trebatzeko akademiak
gure lanari nola egin trufa
sagar saskia zizareez nola bete
nahiago dut borroka greko-erromatarra
Tourrean txirrindulariak Pirinioak eta Alpeak igotzen
Giroan txirrindulariak Dolomitak eta Alpeak igotzen
edertasuna dago paisaian
edertasuna dago esfortzuan eta sufrimenduan
edertasuna dago gizatiarra dirudien guztian
eta barne hartzen gaituen naturan.

Nire xurgagailua ez da robotikoa
laketgarriak zaizkit espartzuzko erratz xumeak
oztopoz beteta dago egiarantz daraman zirkuitua
baina ausardiarik baduzu beti jakinen duzu irri
egiten.

Nahiago dut balleta
ondo egindako gauzak miresten ditut baina ez ospea
ustelduta ez bada pozoituta datoz azukre koxkorrak
ate birakariak kristalezko orratzak
kode selektiboak belusezko jauregietan.

Badira zine eskolak eta idazle eskolak

badira finantzen mundua eta apustuen mundua
ikaragarrizko etxe-orratz erraldoiak
Domus Aurearen erreplikak Neronen nostalgikoak
inposaketa eta makurtzea bilatzen duen sekta berri bat
harrokeriaren tribuna koloniaz bustitako arratoiez gainezka
erudizio faltsua politika faltsutuak
puzten doala arrandiaren kupula
gero eta jarraitzaile berri gehiago ditu
igelen eta ornitorrinkoen arteko orgiak
eta azkarregi bikoizten dira biktima zaharrak
eta azkarregi hondatzen bezero arrunten ongizatea.

Deskonposizioari kantuan kardamiruak.
Elurrez inguratutako borda isolatu bat.
Aztoramen eta erakuskeriarik gabeko denbora.
Hortxe egon nahi dut. Horra iritsi nahi nuke.

ORIGAMI

papiroflexia japoniarra
gaueko elkarrizketak irratian
lo egin nahi ez duten besapeak eta eskularruak
orgasmoak eta umiliazioa prezio berean
maitasun hitzak eta isilune gordinak
txoriak arrain merkatuan
aurpegi hantuko sendagileak tabernan
bisturi gurutzatuak profeta *sasidylandarren* eztarrietan
langabeak autoko haizetakoak garbitzen

goizaldeko ihintza duintasunaren barne-suak irensten
ezinezko neutraltasunaren ogi papurrak
bideo-zaintza sistemak norbanako bakoitzaren buruan
sagu izoztuak diren gizakiak zubien erdian geldirik
arropa zuria dirudien ur magnetikoa
modu ez artistikoan tolestutako sentimenduen pisua
mutilazio bihurtzen diren zauriak

bateria-jotzaileen maniak bezala
dena azkarregi aldatzen ari da

zu ez zaren arrazakoen azalaren kolorea
trenen abiadura eta jatetxeen itxura
bokaziozkoak ziren zereginen indarra
orkestrako zuzendariak maite ote du musika?
hiriko paisaia eta argazkien esanahiak
umeen blues ametsak sehaskan

atzamarren artean
antilopeak zisneak untxiak hegazkinak
herensugeak lertxunak igelak itsasontziak
dozenaka lore desberdin
alpargata disekatuak bainuontzi ondoan
gainezka arropa zikinen saskia
komuneko bonbilla
eta oheko gorputzak
aldatu beharra
BIZITZA
itxi gero paperezko leihoak

ETXE GATZATUAN

Hautsita hegalak
zurrunduta erreflexuak
erlojua tenorearen haginetan
geldi piztiaren mutur satsua
koralez eta itsas trikuez inguraturik
lotan dagoen gaztetxoaren aurrean.
Inozentzia, antza, gaindiezina da.

Lema ez da aizkora
uhinak ez dira egur biguneko kapritxoak.
Azala erantzi nahi diot itsasoari
brankatik behera besoak luzatu
eta gogor tira egin
larrutu egin nahi dut etsaia
haren begi anitzetan sartu
arpoi zahar guztiak.

Gorpu bat ez da eguzkitan
lehortzen laga dugun antopara
ez da altzoan mantendu nahi dugun

itsas zaldi irristakorra
gordintasuna mastekatzen
masustondoa hazten ari zait
eztarritik gora.

Hustutako borondateen ufadaz
badoaz hegan arrosarioak.
Gu hemen geratzen gara
pintura altxatuko biberoen artean
aurpegi zimurtuak
atunaren odolaz zikindurik.

Eroaldiak bere mingain
lakarrez miazten gaitu.
Alferrik egiten diogu garrasi
etxe gatzatu honi.
Itsasoa usteldu egin da
ametsen bila abiatu garen unean.
Marmolezko sehaska
bihurtu zaigu barkua.

MONTREALGO KAI ZAHARREAN

Denborak sagardo beroaren zaporea eta geldotasuna dauzka Montrealgo kafetegian. Neska quebectarraren ezpain zurixkek hiria estaltzen dute osorik. Kastore larruz egindako lepoko bat ukitu dut lehendabiziko aldiz, eta orduantxe ulertu haren prezio debekuzkoa. Antzinako itsasontzi batena omen zen zapaltzen ari garen zurezko zola. Elurrak zirkuluetan erortzen segitzen du. Dagoeneko badira bi ordu, eta leiho bakarra. Zer da konexioa?, zer harremana?, zer kontaktua?, zer ukipena?, txikotarik gabeko loturan, korapilorik gabeko elkartzean. Komunikazio mehe honetan desegin egingo naiz... Baina oraindik ez! Elur malutak dasta ditzaket hemendik. Zuhaitz jakin bati buruz eta ibai bati buruz ari gara hizketan. Adar kiribilak, izokin iheskorrak. Nola sustraitzen dira bestearen begiak norberaren begietan? Nola errotzen izateak bata bestearengan? Arrabak bota eta denbora gutxira hiltzen omen dira izokinak, gogoa geldo geratu zait irudi horretan, baina bare etzanda gu bion

gorputzetan. Arnas lasaigarria da denbora paretako erloju handian. Bizitza besarkada denean, kate eta eskeleto guztiak itsasora erortzen dira inoren eginahalik gabe. Gure oinek ez dute botatzar hauen beharrik. Bada tren-geltokian kontsigna bat nire altxorra gordetzen duena, hementxe daukazu giltza; orain, barkatu, alde egin beharra daukat.

Urteak dira norbaitek halako zerbait esan zuela Niagarako ur-jauziei begira geundela: «Ez da pertsona soilik, momentu egokiarekin ere bat egin beharra dago». Festaren erdian ehorzketa txikien sentsazio bitxi hau... Ongi dakizu zertaz ari naizen, ezta?

Denborak sagardo beroaren zaporea eta geldotasuna dauzka Montrealgo kafetegian. Urteak igaro badira ere, ze, konturatu edo ez, ia egunero nago Montrealgo kai zaharraren gainean. Eta irrist doan arraina da denbora. Gure botatzarrak zurezko zola higatuari lotuta. Orain, kikara sendo zurietan kafea hartzen dihardugu. Atsegin dut objektuak pisutsuak izatea. Psikologo asperturen batek azter lezakeen zerbait da hau. Arraroa gertatzen da neguaren gorrienean Bob Marley paraje honetako kafetegi zahar isolatu baten

aire itxian flotatzen aritzea. Atsegin ditut kontrasteak. Hau psikologo alienatu batek iker lezakeen zerbait da. Askatasuna ez da jostailu bat, desioa ez da jostalekua. Ehorzketa berezi hauek, ordea, ez naute bereziki penatzen, inoiz ahanzten ez baditut ere. Bizipenen taupada bizkorrenek beti aurkitzen naute gutxien espero dudanean. Prozesu horrek, bai, gertatze horrek joko bat dirudi.

Arrastiriak otzan luzatzen ditu bere besoak jada ilun dagoen Montrealgo kai gainean. Tximinia ondoan jarririk, sabela garai batean itsasoak zeharkatu zituen zuraren gainean etzanda, artzain-zakur zuri-gris batek ingelesez eta frantsesez egiten du amets. Eskultura bat dirudi. Uneko bakearen eskultura. Neskak ez du eskaini diodan giltza onartu, kontrara, bere etxekoa erakutsi dit; animalia txiki bat bere esku zurbil, mehar, luzeetan... «Ez da pertsona soilik, momentu egokia baizik».

Batzuetan, tokia bizi dezagun, momentuak bat egiten du pertsonarekin. Beste batzuetan, momentua bizi dezagun, pertsonak bat egiten du tokiarekin. Horrelakoetan gutxi axola, eternitatea hustasunez betetako

putzu metafisikoa bada! Horrelakoetan gutxi axola, milioika urtetako bilakabidean naturaren zein gizakiaren nekearen tantek betetako zuloa besterik ez bada!

Elurrak zirkuluetan erortzen segitzen du, eta irrist doan arraina da denbora. Sagardo beroaren eta kafearen zaporea gozoro, miragarriki nahastuta neskaren ezpain haragitsuetan. Zentzumenak gerarazten dituen segundo amultsua da eternitatea.

AMUITZA

ahuntzak sasia jaten
zer uste zenuen ginela ba?

munduko auto azkarrenen jabe eta gidariak?
gorputz desiragarrienen fotokopiak?
legedi guztiz justu berriaren bozeramaileak?
akaso chef famatu pontifikatzaileak?

itxaronaldiaren nikotina gara
hatz beltz-horixkak gasolindegietako komunetan
bizimodu pornografikoen editore amateurrak
gogamen kamutseko zorrotzaile euforikoak
sudurra hautsita duten boxeolari logaletuak
informatikak artzaintzarako sortutako irudi animatuak
gurutze hipermodernoen zamaketariak
chihuahuak hipodromoan
oinetakoetan pixa egiten duten mozkorrak
pertxan zintzilik biluzik dauden soineko bakartiak
orkatila lodiko dantzariak

ahuntzak sasia jaten

ez dago arintasunik gure grabitazioan
zolitasunik ez gure bidaiatzeko eran
maleta gurpildunak gara ezezagunen eskuetan
bizioaren eliztarrak patrikeretan txanponak bilatzen
akolito bizargabearen itxurak egiten ditugun
bitartean

GOIZEKO KLARAZOIAN BURUAREKIN BLAGAN

Zure hilobira
bueltatuko zara

erotasuna bedeinkazioa bihurtzean
errotak irin lizunduaz estaltzen zaituenean
haize goxoena mingarri gertatzen zaizunean

hariztian bakerik aurkitzen ez duzunean
zeruertza ubeltzen denean
bihotzek eguzkia irentsitakoan

loreen zainak laztantzera
ametsen azalekin habia egitera

bueltatuko zara
zure hilobira

eta ihintzak
zuretzat zabalduko du
zilarrezko maindirea

BERRIRO ESNATZERAKOAN

Tai-txia parkean
belaontziak badian
nire bularrean taupaka mendia.
«Denbora gehiegi zu ikusi gabe»
diost baina ni mutu.
«Non izan zara hain luzaroan?»
galdezka baina ni ixo.
«Ardiak ahuntzak ahariak
behiak pottokak gizakiak
animalia bera eta
bakarra zarete denak»
esanez utzi nau
jarrai dezadan nire paseoa.

Alai eta oparo jaisten da ura
ehunka bidexka ezberdinetatik.
Begi idorrak ikusten ditut
etxe-orratzen itzaletan.
Botereak ez gaitu maite

eta guk ez dakigu
zer egin daitekeen askatasunarekin.
Mendi gailurretan ez dago epaiketarik.

Bihotzaren oinak beratzen jarriak ditut.
Orekaren irrikaz elikatzen nauten
barne-isurietan talka egiten dute
nire buruaren bi aldeek.
Askok amesten dute dirutan itotzea
baina ezinbestekoa dut nik
mendiko ur hotzak dakarzkidan
elurraren oroitzapenetatik edatea.

Tai-txia parkean
belaontziak badian
kale-zainak gogaituta daude
absentziak garraiatzeaz.
Erakunde abstraktua da Polizia
baina aginduak ukitu egin litezke
eskulturak bailiran
zerrautsez estalitako labirintoan.
Lau hankan dabilkigu
zuzenbidearen okerkeria
xake taula moztailea den hirian.

Bada leuntasunik gabeko
sagarrondo zoragarri bat
usaintzen dudan bakoitzean
besarkatzen dudan aldiro
zatika erortzen zait azala
bihotzaren berritzean.
Jolasean haurrek lurretik
jasotzen dituzten
nire geruzaren papurrak
kolore guztietako
goxoki bilgarri bihurtuak.

Azkazalak mukiak ilusioak jaten ditu trafikoak.
Beltza da semaforoaren kolore bakarra.
Lagunartekoen umiliazio arrunt tristeak eta
traizioak
baratxuri zopatan bustitzen dugun eguneroko ogian
parkeko ahate eta zisneak burua makurtzen ari
direla
eta maitaleak elkarri berotasun bustia laztantzen
eta irakurle bakartiak unibertso berriak dastatzen
poemak komikiak eleberriak epitafioak elegiak.

«Denbora gehiegi zu ikusi gabe».
«Non izan zara hain luzaroan?».
Nire bularrean taupaka mendia.

LED argien kliskak
beste hilketa bat agintzen du
giza sakrifizioa ez da
antzinako kulturen ohitura soilik.

Kafetegiko terrazan betiko manikiek
ispilu erraldoia osatzen dute
ezpainek kafea ukitu orduko.
Ezin norberari buruz baino hitz egin
arima bakoitzak bilatzen du bere geriza.
Eguzkiari eskainiz masailak sorbaldak debozioa
zimurtzen ari da artifizialki tenkatutako haragia.
Eraikuntza honek gure hezurdura du euskarri.
Portaera konpultsiboak eta bordatu zuriak
elizkizunak bihurtu ditugu mundutasunaren zapi.

Azken ufada epelarekin egiten du amets
bakarrik bizi nahi duen hego haizeak.
Espaloian belagileei mentalki tiroka
bularrean mendia taupaka.

Ardiak ahuntzak ahariak
behiak pottokak gizakiak
animalia bera eta bakarra.

Alai eta oparo dator ura.
Non izan ote naiz hain luzaroan?
Tai-txia praktikatzen
belaontziak badian.

ETER EURIA

igitaia ama-lurraren marruen gainetik hegan
ume burusoil biluziak elkarri begira
matematika formulak telepatiaz trukatzen
begetarianoan mendebaldeko geisha akonfesionalak
maskoten oturuntzari argazkiak ateratzen
Paris Fashion Week-eko pasarelan
aurpegia erreta duten emigranteak txandalez
belauniko klarion puskekin marrazkiak osatzen
hiperrealismoa harategietako beira-paperez bildua
txaloak eta tiroketak antzezlanaren ostean
pantailek ez digute introspekzio bidaiak egiten uzten
ile apaindegiko guraizeak ez dira euren buruaren
jabe
urduritzen hasita dago arantzez betetako lorezaina
kanta malenkoniatsuen ordua autoko irratian
desinformazioaren uhinak zuzen-zuzenean
iragazten ari zaizkit etxeko zirrikitu guztietatik
antzar konspirazioa martxan da Lekeitioko kaiko
urpean

nire pentsamenduak ez ditu onartzen egungo legediak

GURE HEGALAK

ez du memoriarik zure eskutitzak irentsi zituen
hareak
ez du entzun nahi hizketa xurgatzen dizun paretak
arbolaren azalak ez du onartuko zure iraganaren
egia
erotasuneranzko bidaia gerta liteke gaualdiko leizea
bere buruarekin larrutan ari den gaurko gizakiak
beldur dio heriotzaren musuari izua bizitzaren
ezpainei

«zoriontsua naiz» ahoskatzea ez da zoriontsua izatea
sorkari hezigaitzak kondenatuta daude eskolan
ohiko lezioek eta aginduek ez dakarte ikaskuntzarik
sarritan bereizi ezinezkoak dira nagikeria eta
fanatismoa
itxura batean kalterik batere gabekoa da
botereak jositako doktrinamenduaren janzkia

lanketa arduratsuak saiatze zorrotza eskatzen du
eta loezinaren kaiolak sosegua esne epeletan

eta irudimen indartsua eta askea
denborak pazientzia galdatzen du bitartean
eztabaida sutsuek gogoa lausotzen dute
mingainaren labak mozten burubidea

erreka izoztuaren lepo gainean idazten ari naiz
zubipeko zaborren artean arnasten ari naiz
edertasun desberdin baten bila aztarrika ari naiz
aldi berean garaileak eta garaituak izate honek
busti eta mengel bihurtzen ditu gure hegalak
aise dabilen arren zangorik ez du haizeak

ODOLA

atunaren odolak
begiak itsutu zizkidan
anaiari besoan kasik
kroka iltzatu nionean

zimarroi motxokararen
gose basatiak
guztiz bizirik
sentiarazi ninduen

ekaitz osteko itsaso barean
erokeria hura nahi nuke
nik beti begien aurrean
eta hortxe bizi luzaro

bizirik da bai
nire zainetan eta
nire izatearen muinean
atunaren odola

ATZERRI EZAGUNA

Erreakzio alergiko batek
bizkortu du nire onberatasuna
telefonoz hizketan ari nintzen bitartean
eta Bostongo arteria nagusiak sutan hasi dira
Chinatowngo zulo batean New Yorkerako
autobus-txartel bat erosi dudan istant berean;
beti nago arrotzez inguratuta,
bereziki, hilabeteen ondoren,
jaioterrira itzultzen naizenean,
eta emozioaren dislexian
berriz ere abian jarri behar.
Erreakzio alergiko bat
ekoizkin kimikoen eta
pentsamendu korrosiboen eta
neguko bakardadearen eraginez
kutsatutako dutxa publiko batean.
Metro-ahoan erhu-aren doinuak
ameskizun goxo batera narama;
nor naizen gogoratzen dut
zer garen ulertutakoan.

Oraindik ez naiz inoren etxera heldu.
Bizialdi urte hauek guztiak
nahikoa ez direla
eta hala ere gehiegi
esaten dit gogoak.
Lanpararen argi apalak
gaurkoan ez dirudi gaixorik,
nire esku hozmindu eta logaletsuak
idazten jarraitzen du haren azpian.
Elurra ari du Erie Street txikian,
historiaurreko animalia baten
atomizazio hipnotizatzailea.

GRAFITEATUTAKO GAREZURREN MILURTEKO LOA

arrosa hostoak
gaueko autobide amaiezinetako euri tantak
belardietan ezkutatutako ziraunen begi horiak
deskodetu beharreko hieroglifiko egiptoarrak
estepako otsoen aurpegi liluragarriak
nire hatz markak

errimel arrastoak irensten dituzten konketak
eta alkoholezko malko lodi mingotsak
eta konorte nahasiaren lerde adierazkorra
bata bestearengan lagatzen ditugun ondareak
grafiteatutako garezurrak
garrasi itoak erdi erorita dauden fabriketako
hormetan
gasolinaz bustitako biografia-koadernoak
metxeroa telefono mugikorraren aldamenean
antsia kontrolaezinaren hedapena
jolas parkeetako abusuak

asfaltoaren kontra izterrak larrutzen dituen
neskatoa
kaleko iturriekin hitz egiten duen mutikoa
arduragabekeriaren hondarrak
esnifatzen dituzten gurasoak
herri bakoitzaren kopetan
gizaki bakoitzaren gibelean
mingaineko zainen artean
nor zaren ezin duzu ezkutatu
zure espirituak ezin eskularrurik jantzi
hatz markak

ekaitzaren bular sendoa zeharkatzerik ez dago
hitz gozoz eta diplomaziaren amarruz
ez gara guztiz ahaltsuak
amets ildaskatuak
gogamenaren zerrautsa
denbora zati zehatz bat
espresio-denbora mugatua
gramotan bizi gara
atomo aldakorrak dardaraka
mikroskopioaren lenteetan
txikitasunaren nanotasuna
hatz markak

ipar haizearen konplizitatez galdu zintudan
metalezko hariz aritu naiz barneak josten
orain apar-harrizkoak ditudan organo horiek
lizunez estalitako eskutitz zokoratuek
noizbait behar bezala hitz egingo didate agian
bitartean hemen justifikazioa ez da hizkuntza bat
trakets apaindutako ezkutalekua baino
zehaztasunez neurtutako esaldi eta isiluneak
enteleguaren azerikeriaz baliatzen diren
izaera koldarren joera aurresangarriaren
oinatz mekaniko baldarrak dira
antzerkirako jaiotako bihotzen bafa
zenbat eta lurrin gehiago are eta jasangaitzagoa
airea
benetako sormenak benetako nortasuna eskatzen du
maitasunak maitasuna
hagitz oinarrizkoak izanik
oso sinpleak baitira pertsonaren sentipenak
alegiazko konplexutasunek
ogi orearen misterio bera daukate
okaztagarriak zaizkit gainontzeko aitzakia-lengoaiak
eta bitartean lapitzezko mundua
ezpain-lapitza begi-lapitza

hamar lapitz eskuetan
grafitozko liraintasun lausoa
arinkeriak asmakizunak soslaiak
bozetoak diseinuak zirrimarrak
eta bitartean marfilezko armiarmak
izerdiz belztutako burko higatuen gainean
hatz markak

trafiko istripuak buruan
burdina okertuak
gorputz konkortuak eta figura zurrunak
espaloietatik begira
segundo bakar batean iragan eta etorkizun oro
unibertso zabalaren mehetzea
ardura eta kuriositate sanoaren anorexia
eta baztertuentzako estalpeak
eztarri desesperatuak
bideo zaintza-kamerak
zakurrentzako uhalak
aluminiozko geziz ehizatutako hontz zuriak
akerrak haurdunak kolpatzen
sabelak
kristalezko arrainontziak
hatz markak

haur-koro bat abesten
zaharren egoitzako eskaileretan
koadro bat iruditzen zait ikusten dudan guztia
auskalo zenbat mende daramatzadan
banku honetan berean eserita
milurteko loa milurteko esnatzea
badakit profanatutako ehorzlekuak garela
betaurrekoak galdu dituzten galtzak eta gonak
xaboi burbuilak
desagertu egiten diren globo koloretsuak
hotz izanik ere sentitzen dudana
aise arnasten dut epeltasuna
dozenaka ateren ukabilean
dozenaka leihoren saihetsetan
egunero gauero
nire hatz markak

tarteka antilope bat nire parean
edo ezezagun bat zigarro eskean
beti ere ni neu besteengan
trikua orkatza hartza
zuhaitzen gerriak laztantzen ditut
inoren soan ez nagoenean

horrelakoetan bi bider bizirik sentitzen naiz
agian hori da zoriontasuna
haritzak haginak lizarrak
askatasuna nire enborrean inprimatua
pagoak urkiak gaztainondoak
zentzua hartzen du ukimenak
naturaren bakean geratzen dira
nire hatz markak

bat-batean hondartzan
bufalo zaurituak
plastikozko baloi zulatuak
lumak adarrak erroak
arrainak eta katuak tripaz gora
negu gordinean ez nau inguratzen beste ezerk
nire mugaren gainean
makilaz marrazten dut zirkulua
bertan geldirik geratzen naiz luzaro
marlaxken esperoan
une horretan otutzen zait
azken finean
ez ote naizen
beste norbaiten
hatz marka

EUTSI ENBATARI!

esmeralda zoragarriak
izar epelen begietan
gogo bizia dut zu musukatzeko
irrikatan nago lastoari su emateko

enbata dator mendebaldetik
arraun zaharrak atera beharko ditugu
odola dut zainetan —aitzakiarik ez
kemena dut bihotzean —lokartzerik ez

anai-arrebak
zatozte nirekin
hasiera bakar bat ere ez da amaitu
baina egunero akabatu nahi gaituzte
betiko azpikeriak plater berrietan eskainiz
egungo ergelkerien hipotermiaz baliatuz
edozein deskuidutan biluztasunak trenkatuz

esmeralda harrigarria
zure zilbor tentagarrian keinuka

gogo bizia dut bide honi bakarrik ekiteko
irrikatan nago giharrak lehertu arte gugan sinesteko

kontuz gero eguzkiarekin itsutu gabe
kontuz gero dorre garaien itzaletan hoztu gabe
kontuz gero korridore zurrunetan erotu gabe
kontuz gero nork bere esku-idazkera ahaztu gabe

HAUSTERREA AIREAN

Armiarma sare bilakatu dira musuak
begi gorriak atzeranzko ispiluari itsatsiak.
«Agindupean egiten ditut nire lanak» zioen atzo
torturatzaileak automobilean sartzean,
«gustura betetzen ditut aginduak» dio gaur.

Armiarma sare bilakatu dira giza harremanak
hauskortasuna, baita tranpa ere, eta lo errea,
zigarrokin bihurtu dira atzamarrak
eta edozein motel merketako hautsontziren batean
birrinduta geratuko gara, ezustean, axolagabean.

Lepoa moztuta duen brontzezko gerlari baten
estatua;
zein gutxi desberdintzen diren loria eta erridikulua!,
garaipenaren semantika eta zentzugabekeria
plaza nagusian, eta gu geu gara plaza nagusia.
Non geratu ote zen burua?, galderak ziztatzen nau,
auzoko haurrak futboleko baloiari ostikoka
dabiltzala.

Pitin bat harantzago, skate parkean,
erlauntzaren antzeko zaratotsa hartzen du bizitzak,
eta bizitza, segundoro, azkarrago doa,
gure artegatasunak abiarazten baitu etenik gabe.

Aginduak jasotzen zituztenek
dominak jasotzen dituzte orain,
bakea ez da inoiz jo eta dena garbitzea izango.
Itsutasun beltza atzeranzko ispiluari itsatsia.
Merkurio putzuan hondoratzen ari gara geldiro
irribarreei eta koroiei etsian eusten diegula
bizitzaren begiei zuzenean so egiteko adorerik gabe.

LONG JOHN SILVER NIRE ERRESKATERA (TXANPON MAKINA MADARIKATUA)

Txanpon makinari kea dario, eta rottweiler albinoek, doberman estrabikoek eta tangoa gorroto duten dogo argentinarrek —denak kaleko gaizkile talde endekatuen maskotak— lerdea jariatzen dute, nire lagunaren alabak fruta-ahiaren aurrean bezalaxe. Beti ere halako giro arrarotua sortzen da txanponak eta billeteak urritzen hasten direnean, eta kreditu txartelak garaiz baino lehen limoi zukutuak bezala geratzen direnean. «Ez itzazue nire mahai gaineko nabigazio-kartak ukitu, zenbat bider errepikatu behar dizuet gauza bera!», ari natzaie mentalki gaurkoan ere. Ezin bestekoa dut distantzia mantentzea; zoko hauetan ez dago inorengan fidatzerik. Gogoetak eta erantzunak aldatu egiten dira konturatzerako, ez, ordea, itsasbideak. Berriro aritu nintzen eukalipto lurrunak arnasten, baina nire

marrantek edozein neguk baino gehiago irauten dute. Ezker eskuaz *On Kixote* idatzi nahi izan nuen, baina mukiak isurika nituen argizari tantak bailiran, eta honenbestez gaztainondoko egurrarekin eskenatoki txiki bat eraikitzea erabaki nuen etxeko egongelan eta debozio osoz Shakespeareren obrak interpretatzeari ekin nion ispilu aurrean. Kontrakorik pentsatuko duena izango bada ere, hau ez da nartzisismo kasu bat, edo antzeko patologiaren bat, besterik gabe ahozko, eta gorazarrezko, ariketa da, bai entretenimendurako bai terapia gisa oso baliagarria zaidana, zuek udal kiroldegian abdominalak egiten dituzuen bitartean edo arratsaldea zurrutean ematen ardo eta garagardo botilak bata bestearen atzetik husten, deabrututako mozkortiaren eran taberna zikinetako barrak eta hormak miazkatzen. Foie-gras epela, horixe da Kaliforniatik heldu berri diren nire gonbidatuei zerbitzatzen diedana, eta horrela hasten da festa, denak diskutitzen —ni izan ezik— animalien tratu txarrei buruz eta beste zenbait bertsio hipokrita giza generoaren lorpenekin eta ohiturekin zerikusia dutenak —maisuak gara berritsukeria hutsal izerditsuari dagokionean—.

Tira, foie-gras fin eta garestiena, kontrabandozko izokin arrabak, beluga kabiarra, Italiako trufak, matsutake onddoak, vodka eskoziarra, erregaliz eta anis zaporeak maisuki biltzen dituen Belgikako garagardo esklusiboa. Esklusiboak baikara, eta, zalantzarik gabe, mokofinak, eta ezin baldarragoak alkohola musukatzen hasi bezain laster. Hizketa gai aspergarrien zerrenda amaiezinarentzako alorra doiki prestatzen duen aperitibo txoroa, haurtzaindegi aztoraturen batekoa dirudi gure dialektikak, baina horixe da dagoena jende «cool»ak burmuina salbu gorputzeko beste edozein atal operatzen duenean. Gugandik honatago eta kezko hesia den telebistatik haratago hainbeste gerra erreal daude, gizaki izate honetaz erraietaraino ere lotsatu egiten naizela supermerkatuko esneki sailean jogurt sorta anitz eta oparoegien aurrean paralizatuta geratzen naizen aldiro, drogaturik bezala lurrari iltzatuta hainbesteko ugaritasunarekin aukeratu ezinean, erabateko kolapsoak gainditzen nau, batez ere postmodernitatea delako honetan kontraste bortitzen ulertzeko ezintasuna da harritze honen jatorria. Esan dezagun errealitatea bera dela azkenaldi honetan arras gainditzen nauena,

errealitatea bere osotasunean diot, hots, paraleloki txertatuta doakion errealitate birtuala delakoa barne harturik. Zeharo neurotizatuta gabiltza, igual da eskoletako jolastoki eta komunetan, handi-mandien ohe, bainuontzi eta zalditegietan, nonahiko berezitasun aipagarririk ez duten auzo arruntetan, apaindegi zatarretan, edo apain eta zatarren kaiola-buruetan. «Ez dut ulertzen txanpon makina! Bizi propioa hartzen ari da! Irentsi egingo gaitu!», garrasika esnatu nintzen lehengoan. Nahasmendu psikiko betean hankaz gora dabilen armada itzela osatzen dugu, eta horixe gara. Hatz horitu okertuen artean azkarregi erretzen ari den zigarreta da gure bizitza, eta halaxe gabiltza. Konbentzimenduz eta iaiotasunez ostikada sendoa ematen badiot txanpon makinari, baliteke bat-batean rock and roll talderen bat amorrazio biziz jotzen agertzea. Batek daki!, gauza bitxiagoak ikusita gaude honezkero; gainera, adiskide, badakizu: Inoiz ez dago jakiterik deus ez dakigula. Horixe da nire gaurko gogoeta-askaria. Geroxeagoko ere baditut gordeta sandwich pare bat (oilasko irineztatua brokoliarekin) nire auzoko neska pinpirinaren (tarteka maitaleak gara, tarteka fursuit saltzaileak) hozkailuan. Beraien jabe kaikuek

erabateko maleziaz zirikatutako txakur lerdetsuak —lehentxeago sakabanaturik eta nahiko lasai zeuden piztien animaliak— badatoz begi gorriz nire bila, ziur nagoen arren ez diodala inori deus ere zor, guztiz ziur ez diodala inori iruzurrik egin hainbesteraino obsesionatzen gaituen txanpon makina madarikatuaz baliatuz edo, egunean-egunean lehia bizian gaituen maxina alu hau, eta ez diot inori janaririk ostu, ezta ere zigarro habanarrik, are gutxiago inoren neskalagunari desioz begiratu (hau da hau mundu intolerantea!, eta beldurtia), ze ni beti neurera noa (eta jarrera horixe da gehien molestatzen duena, antza); ez, hau ez da kontu garbitze bat, kainismo hutsa baizik, behin eta berriro. Jakina da bere kasa dabilena susmagarria gertatzen zaiola artaldearen begirada zurrunari, eta artaldeko klanen begiradari, eta artaldeko tribuen begiradari, eta artaldeko sekta, etnia, elkarte, fakzio, kuadrilla eta, noski, gaizkile taldeen begiradari. Azpigenero guztien azken azpigeneroa da bere kabuz dabilen elementua. Muga gurutzatu eta maite dudan kartier aski dotore bateko zinema areto txikian ezkutatzen naiz. Ilunpetan gurutzegramak egiten amaitzen dut eguna

desagertzera behartuta dagoen felpa morez tapizatutako butaka zaharkituaren azpian Long John Silverrek isil-gordean bere ron botila eskutik eskura pasatu didan arte —zorionez oraindik bada ulertzen nauenik—, eta horrela hasten da bidaia berri bat.

ORNODUNAREN KONDENA

neurona-loreak zaurituta ditut
hezur-muinetatik eguzkirantz
irten daitezen borrokatzen dut
baina borondateak hemen
ez du hitz erabakigarririk

ornodun hau kondenatuta dago

joko zikinean dabilkit zaineria
mezu okerrak modu kaltegarrian mugitzen
nire gorpuztasuna da nire galbidea
minak ezabatu egiten du denboraren lerroa
eta pentsakizun adierazezinekin batera
uzkurtzen ari den gizaki horizontala bihurtu naiz
zutitu orduko atsedenaren bila dabilena

metodikoa da krudeltasunaren
jainko mikroskopikoa
eta bere zorroztasunak
ez du bereizketarik egiten
urteetako apustu fanatikoa dirudien honetan
zein ote da bidaia zital honen xedea?
nik ulertzerik ez eta
ulertzeak eragin errealik ez

ornodun hau kondenatuta dago

gelditasunean bizi naiz
baina bizitza mugimendua da
bizidun gehienek bederen
mugimendua dute ezaugarritzat
haurrak parkean
animalia zoragarriak
garrasika eta algaraka

baina metafora ez den
leiho handiaren alde honetan
elegante bezain makal
isiltzen ari da etxeko piano zaharra
nagiak harrapatuta akaso

arrangurak eta izuak akaso
pixkanaka-pixkanaka
irmotasunez
bihozgabeki

ornodun hau kondenatuta dago

BEGIAK ITXITA

urtxintxa azkarrek ez dute presarik
biluztasun malgu eta hezeak dena janzten du
mundu egartsuak ahoa zabaltzerakoan
kasik matrailezurra hausteraino
hodeien artean ezkutatzen dira
zaldien buru eder ikusgarriak
lanbroa luma erraldoia da behorren sabelpean
lanparak piztu eta itzaltzen dituzten tximuak
eguzkiaren izena berrasmatzen dituzten narrastiak
bular zoragarriak elizako kanpaien artean zintzilik

urteroko ozeano arteko ibilbidean
hizkuntza berriak ikasten dituzten zimarroiak
pausatzen zaizkit gogoan
amets egiten dut blusa gorri gardenekin
bidea erakusten didaten aldaka perfektuekin
aitona eta biok beltzez tindatu gintuen
lehen txipiroi begihandiarekin

gaua nare zabaltzen da zelai infinitua bailitzan
zilar urdin berde eta beltz ileorde sorta amaiezina
banan-banan erauzten dio itsasoak bere buruari
eta gero espaloi grisaxketan atseden hartzeko asmoz
atea jotzen du haizeak bere esku egongaitzekin
errepikan dabil leihoetan bere hatz bihurriekin

hemen tarteka bada atsedena
edo antzeko zerbait bederen
musika-kaskoetan euriaren soinu grabatua
ezustean aldatzen zaion arren intentsitatea
aldatzen ez dena beharra da
hemen ez baitago kapela bat buru bakoitzarentzat
ez baimen ez bake ez erruki eternalik

hemen maite ditudan adinduek
liburuak irakurtzen dituzte patxada ederrean
eta ondoren ilunabar geldoetan
gurekin komentatzen dituzte
gazte asko euren ezinegonarekin
zer egin ezin asmaturik dabiltzala

hemen isiltasuna eta baretasuna dira paradisua

bitartean eta apenas begi-kliska batean
aguretu egin dira
oraindik hitz egiteko gauza ez diren umeak
eta mutu geratu dira
entzuten inoiz ikasi ez duten helduak

bainuontziko ura fotografiatu dut
norbaitek dutxa hartzen fotografiatu nauela
eguneroko akzio txikiez egiten dut gogoeta
urteen joan-etorrian adiskideek zein etxekoek
oparitu dizkidaten landare eta irribarreen
konpainian
zorion handikoa naiz
begiak itxita ere hainbesteraino badakit
nahiz eta gainetik astindu ezin dudan
oinaze suntsitzaile kronikoa

inork gutxik ezagutzen du piztia gupidagabe hau
eta hobe sekula inork ezagutzen ez badu
goxotasuna besterik ez dut desio
bizitza izan dadila solasaldi atseginen
edo besarkada ordezkaezinen pareko zerbait
edo musika suspergarri bizigarri ernegarria
argitasunean misteriotsua arina galkorra inoiz

antxeta transgenikoek ez dituzte arrainak gustuko
ehiztari baldarren harrikadak saihesten dabiltza
euri kristalizatuak ez gaitu zauritu nahi
eta dagoeneko ezin jakin dezakegu askatasuna
lorpena den edo berezko egoera naturala

garbigailuak katuaren gisa
urruma egiten dit sukaldetik
telebista bihotzekoak jota hil zen
bart arratsean zeharo asperturik
traktore zaharrak zein dotoreak diren
pentsatzen jarduten dut noizean behin
arropa zabaltzen dudanean
pintza bat edo beste erortzen zait eskuetatik
aspalditik botikak hartzen dabilenak
zertaz ari naizen badaki

hemen arnasa egitea da
benetako eta aparteko gertakaria
etenik gabeko gure arnaste egunerokoa
eta hala ere ez diogu arretarik eskaintzen
arrazoitzearen eta arrazoiaren
jaun eta jabeak izanik ere

ez dakigu unea neurrian baloratzen
hauxe berau oraingo istant bakar hau
ez dakigu gozatzen eta maitatzen
gure erreinua kexu-padura irrigarri
bezain tamalgarria da zinez

lihozko hegazti
geldoa da ortzia
ia mugiezina eta morea
bere mugagabetasunean
nekez suma daitekeena
burezurrak urratzen dizkigu
gure adimeneraino iritsi arte
gogoa
adorea
tarteka goreneko dragoi bihurtua
antzinakoa
etenkorra
baina errotsua hala ere
makurgaitza
tarteka haritzaren adaxka lehorra
giza gorputz galduari iltzatua
sorbalden arteko puntu erdian txertatua

bizitza iragankorra baldin bada
baina aldagaitza arrazoimena
orduan zeozer gaizki egiten ari gara

ROASTBEEFAREN LOKARRIA

elikagai gehiegi: urritasun modu bat da
elikagai gehiegi: gose forma bat da
dinamikek zentzua izateari uzten diotenean
garaia da sinboloak apurtzeko
eta mitologia errepasatzeko

estetikaren laudatzaileek
ez dute zoritxarra ezagutu
pertzepzioaren atrofian bizi gara
mezu subliminalen arnasketa jolasa dirudi
lagunekin ikasi banuen igerian
ez zen soilik uda sasoirako izan
esangura handiko egoera
izan liteke ahitze fisikoa
eta berdin espirituaren apatia

menderaezinak sentitzearren
giza sakrifizioak asmatu zituzten boteredunek
ugaritzen ari dira kontrol gela antzemanezinak
eta segundoro begi bat zabaltzen du udaberriak
neguaren errautsezko azken zainak ikusteko

ZAKU URRATUA URETAN

Hau bada dena
has gaitezen berriro
Hau bada dena
ezer gutxi lortu dugu
orain arte
Has gaitezen berriro
has gaitezen berriro
bukaeraren hasieratik
Ze
gure begiek
euriaren zain dauden
manikiak baitirudite
Eta
giza organoen salerosketan
beherapenak iragarri dituzte
Ustekabean
luxuzko yate batek
aingura bota du gure xaian
eta anai-arreben LP zaharrak txikitu
Mendira

joateko asmoa nuen
baina mendiak
desagertu egin dira
gu konturatu ere egin gabe
Nonahiko
pantaila horien eraginez
elbarritu egin gara
Hain zuzen
jakin nahi nuke
zenbat balio duen gaur
hondurastar baten giltzurrunak
heriotza-zigorra ezarri dioten
txinatar baten gibelak
atxilotu eta anestesiatu duten
siriar baten birikak
Izan ere
jelaz betetzen diren baineretan
odolez gainezka dauden horietan
aingura botatzen dute
luxuzko yateek
Eta
hau bada dena
miseriari eta lotsari
ondo amarratuta gaude

Hau bada dena
ezer gutxi lortu dugu
Has gaitezen berriro
has gaitezen berriro
bukaeraren hasieratik

IGOGAILUKO ISPILUAN

maitasunaren ezpain idorrak nirekin
igogailuan harrapatuta geratu naizenean
txitxarro erreak prestatzen ari dira nonbait
garrasika ari da norbait
telefonoz negar zotinka nonbait
dutxan alai abesten norbait

ispilua botoiak zenbakiak... keinuka dabil
fluoreszentea
izango ote da deitura ergeleko koktelak prestatzeaz
gain
sentimendu bakoitza dagokion eran izendatzen
duenik?
honezkero ez dut ez giltzarik ez ordularirik
eta ez naiz inolako belaunaldiren parte

tenorea da samuraiek mototsa motz dezaten
zapata-denda garestiak hartxintxarrez bete ditzaten
igerileku pribatuetan arrain elektrikoak ugal
daitezen

kapsula honetan nik armiarmak irentsi bitartean
aroztegia bisitatuko du gaur ere piromano lotsatiak
eta beste katu bat eramango du etxera andre
jipoituak

tiroak eta odola pairatu ezin dituztenentzat
berdinak ez direnen diskriminazioa da
azken aurreko bideojoko antologikoa

laku baten hondoan itoko da bestea
honezkero ez dut inor ezagutzen

MUGAKO ENBAXADAN AFARIA

Agurtu ditugun hezurduretan
belusezko kapelak eta pamela exotikoak.
Protokoloak bete ondoren bagoaz
kandelez edertutako mahai handira:
animalia hesteak eta legatz arrabak,
orojaleak dira gure espirituak.

Gozoro heltzen zaigu pianoa: *Clair de lune,* Debussy,
eraginkor bezain baregarri edozein unetan.
Baina odol lodiko hariak handitzen ari dira
gure zapata dotoreen barnean
goroldio legenduna osatuz.
Habiatik kanpo dagoen arrautzaren modura
mundua kraskatu dela jabetzen gara,
halako huskerietan gure arreta ez ipini arren.
Badirudi harrera afaria ez dela inoiz amaituko,
fintasunez urrumatzen gaitu errepikatzen den
doinuak,
atsegina zaigun hura —eta deus ez besterik—

entzutera behartzen gaitu gure estatusak.

Sintaxi zarpaileko mezu dorpe etsietan
bilduta daukagu arrain usteldua,
ez da postrea gugan gehien irauten duen zaporea.
Zabaltzen jarraitzen du goroldio legendunak,
eltxo-euri zaparrada gure eztarrietan,
lorategian dardaraka tulipak.

Nahiz eta inor konturatu ere egin ez den
badira zilarrezko koilaratxoak lapurtu dituztenak,
badira bizitza errugabeak trenkatu dituztenak.
Begirada sutsuak eta begirada hotzak aurpegi
mirritan,
soineko gorriak eta soineko beltzak gorputz
arinetan,
lepo luze lirainak etengabe dantzan,
burdinazko esku lodiak isilpeko berbetan.
Nire zentzumen nekatuetan: ilargi zuria.

EX ANIMA

Ur azpian ari naiz malkoak ezkutatzen
ur azpian izate ezpalduari eusten
akiduraren esanahi berriak ikasten
ikasitakoa ordu geldietan onartzen.

Sufrimendua ari naiz laztantzen
arrain txikia bailitzan
haren hezurrak ni banan-banan zulatzen.
Baina horrela dira lasaitzen
zumezko nire esku hauek.

Zer diozu, ama? Zer diozu?
Zure arrangura dut entzuten
zure kezka egunero sumatzen.
Baina bizi naiz, ama,
ari naiz bizitzen.

Gatzezko anfora naiz itsaso gurean
uneoro sendabelarrak eta ukenduak
bilatzen eta nire mami-mamian landatzen.
Bizkar gainean daramat berunezko kupula
ez naiz halere buztinaren antzera desegingo
jarraitzen dut ni neu izaten.

Zer diozu, ama? Zer diozu?
Gor nago eta dena entzuten
nire buru barneko oinazean.

Zer diozu, ama? Zer diozu?
Ur azpian ari naiz malkoak ezkutatzen
akiduraren esanahi berriak ikasten.

DESIOA ULUKA

argia izan nahi dut
argia
argiago

arina izan nahi dut
arina
arinago

gardenago
ahaltsuago
mugaezinago
errazago
biziago

gauzatzen ez diren
haurraren ametsen modura
denbora baino eternalago
eternitatea baino hurbilago
hurbiltasuna baino sendoago
sendotasuna baina errealago

errealitatea baino egiazkoago

egia baino zentzuzkoago

zentzutasuna baino irrazionalago

egunero

askeago

gora igo nahi dut

gora

gorago

UDA BILUZIA

Uda erromantikoa
arinki elkar ukitzen duten kaioletan.
Sagutxoak bailiran piku heldugabeak zintzilik
kilkerrek eguzki-lore urdinak bilatzen dituzte
intsektu urdurien sasoian gaude
zelaietan eta igerilekuetan
sexu-jolasaren sasoian gaude
izar hegalarien sasoian
titi-zorro beltz eta laranjena
kresal eta limoiz igurtzitako sabel, bular, sorbaldena
argi eternalaren udan
erreka egartsuen udan
gorputz gazte bustien abegikortasunaren udan.

Itsasneska zoriontsuak
alfonbra hegalariak
hazi partekatua
marrubi urtsuko plazeraren irrika
barrearen lagunarteko oparia
hitzen beharrik ez duten ezpain leun emankorrak

Heriori egindako laido inkontzientea
azkazaletan, gogoetetan
kolore bizi aniztunak
elkarrekin trukatutako janzkiak
zapore berriko izozkiak
etengabeko esperimentatzea
geratzen zaizkigun negu saihetsezin guztien
aurreko uda.

Lorategi amnesikoen
gordeleku lizunen
begirada tentagarrien
uda biluzian gaude
gure txankleten pean baldosa kiskaliak itolarrian
zizare lodi aseezinek gure izenak errezitatzen
dituzte
noizbait hasitako adur txarreko enkantearekin
segituz
gu gortzen goazela
inuzenteki alai gabiltzalarik
bozgorailu erraldoien alboan
jolastoki oktogonaleko algararen erdian
agur esan nahi ez diegun
bihotzen dardara miragarriaren oihartzunean.

Eta goizaldean eurixka ari du logale den munduan
goizaldean eurixka neska maitagarriaren soinean
fruituaren hezurra eta fruituaren azala gara
jenderik gabeko lili-uhartean
eremu agortua den hiriaren atarian
paranoia eta ironiarik gabeko amets-bidean
bizitzari lotuak gerrikoaren beharrik gabe
bat eginik ziurgabetasun ezaren usain gozoan.

Azukrezko sugandilak daramatzat poltsikoetan,
bai, hauxe da
geratzen zaizkigun negu saihetsezin guztien
aurreko uda.

SCHLECHT

iraganean geratu zara, zakur
dagoeneko ez dago iraganik, zakur
zure gloria eta galera dira zure iragana
platera zornez betea, zakur
asegabea zure gosea
gainezka zure sumin gaiztoa
zure kakari kosk egin diozu, zakur
sikiera lore bakar baten ongarri ere ez
eldarnioaren zakur-maitalea

zure ardo putzu ozpindua
zure euli puztu eta kapar ilunak
zure antzerki faltsua
zure begirada lizuna
zure mingain satsua
zure baba lodiak tabernako barra gainean
eta gutako bakoitzaren gogoan
zure zaunka nekagarriak
zure hatsaren kirats jasanezina
zure amorru maskaratua

zure ohiko silueta zelataria
zure oinordeko mesfidatiak
astamakilaren gurtzailea
sorkuraz eta gustuz salataria
liskarti koldar traidorea
moralizatzaile ozena
zure handiuste doilorra
zure ezdeustasunaren ondorio negargarriak
zu, zakurretan zakur
oraindik bizirik eta hala ere bihotza gorpu baino ez
plastikozko bitxiloreen artean
perfumatutako gorotza zara
haizea bera mespretxatzen du zure arnasa itoak

benetan sendatzeko egiazko asmorik gabe
zauriak publikoki miazten
tragedia greziarrak berrasmatzen
drama orori etekina ateratzen iaioa
erakuskeria gabe existitu ezin duen pailazo zitala
zakur zikiratzailea, zu, zakur zikiratua
odol-gaiztoa eta abusatzailea
aldartea beti azpijokoaren zerbitzura
jokabide garbirik ez sekula
etxe dotoreko eta kale iluneko marrajo desleiala

eguneroko epaimahaietan modako terrazetan
ederki setaz bildurik zure azal-hezurrak
beilatoki pozoitsuan behazuna
zure gisako jendailarekin gozo elkartrukatzen lerdea

zakur,
apar zikin guztia edaten duzu berriro
engainuaren garagardo bihurritua
ez zara berorrekin itoko urde deabrua!
urre eta zilarrak miretsiz orduak ematen dituzu
plazan gurutzeak garbitzen eta distirarazten
heriotza usaina jariatzen duten medailoiak
musukatzen
errezo errukigabeak errepikatzen
hortz-haginak zorroztu bitartean

zakur,
hobekien ezagutzen dudan zakurra
niregandik ihes egin ezin duena
ezta hitz samurren gaiztakeriaz baliatuta ere
ezta trikimailu lotsagabeenekin ere
zapalkuntza engainua gehiegikeria
horiek osatzen zure zakur-hiztegia
ezta otzantasunaren modako azken

mozorroak apaintasunez erabilita ere
zeken alaena!

zakur,
gizon deitzen diozu zeure buruari
eta koroaz janzten okasio oro
baina nik
halako batean nekearen nekez oharkabean kasik
ezin eutsizko barne-askatze kolpe zehatzez
errotik aterako dizudan buru ustel-maltzurra
gizon-zakurren, zakur-gizonen
amildegitik behera botako dut
izenik eta historiarik gabeko
harri koskor arrunta bezala: ezdeusa!
eta gero tripak aterako dizkizute basapiztiek
zakur-gorputz edentsu hori!
ez ote zara desagertuko gaur bertan
bizitzaren kontrako eztarritik!

zakur,
hemen datoz olatu handiak
isilean zure hankak eta azkazalak apartatzen dituzu
hamaika gezurren jabe zaren
zakur lotsagabe izorratzaile galanta

dantzari eta komediante ahobero pairaezina
zerri-azeri zakurtua
txisteak kontatzen dituen bortxatzailea
ni ez nauzu engainatuko
hemen datoz olatu handiak

zure ohiko haserrea, zakur
zure errabia erasoak, zakur
zure marru bakar batek ere ez nau hunkitzen
ahitu zaizkizu artifiziozko mantra horiek guztiak
zure erretratu eta esanak uneoro bernizatuz
darraizula
jada ez zoaz inora, zakur
zure lokarrian harrapatuta azkenik
nora joaterik ez, zakur
usteldurarren hobiaren epizentrora ez bada
zure erreinuko labezomorroen zulora

topa egiten dut!, zakur
zakurrak gara bai
mendebaleko zakur mimatu apetatsuak
nahiz eta denok berdin ez zaunka ez koska egin
eta are gutxiago loak hartu amets antzekoetan

zugan konfiantza jarri zutenengan
esku zabal sineskorretan
oraindik ere pixa egiten duzun
zakur hori,
pixa erregarria beti besteen etxeetako hormetan
gaur, zu, zakur
gonbidatuta zaude nire festara!
zatoz faborez
zure irribarre fazatienarekin
zatoz lauhazka
nire kapela gustukoena jantzi dut
gordeta neukan habanoari tiraka ari natzaio
elur-jauzia ibilkari fidakorraren zain
haize-kolpea bere momentuaren zain
saguzarra gauaren zain
sugea udan bezala
zakurra zakurraren zain

AZKAZAL MOZTUAK

Bereziki bakarrik
etsipenez elkarrekin multzotuak
histerismo eta antsia betean
besteen aurrean nabarmendu gabe ezin geratu
premia larrizko gailendu beharrak eskutik dakartza
ziurtasun eza, zalantza, zaputza.
Azkazalak mozten komun zingiratsuan
ardo koparen ondoan goizeko hiruretan
horrela bizi ohi gara gizatiarrok
izu ezkutuzko animaliak
arrazoian itotzen garen txorimalo makabroak.
Arima aztoratuak ezinbestez
pertsona galduei dagozkienak dira.
Dena simulazioz, dena aproposekoa
berez nahiaz kanpo, izatez azalutsa
mugimendu, keinu, berba, isiltasun tarte bakoitza,
janzkera bakoitza, biluzte bakoitza.
Gehiegikeria oro gertatzen zait hagitz espresio
gabea.
Nire bidea jarraitu beharra daukat

senari segituz bestelako mezuei baino
senari segituz desioen aginduei baino,
azkazal moztuen gainetik
guraize kurbatuen gainetik
izara eta mahai-zapi aratzekin bildutako
gibel kirasdunen gainetik.

CARO PUTRIDAS ES

Untxi zuriari jarraitzeko
ez keinurik
ez ahaleginik
sekulan egin ez eta
konturatzerako
oinak ez ezik
guztiz belztu zaizu bihotza

INPERIOAREN ARNASA

Kamiseta bustien lehiaketa eta sexu usaina
Miamiko modako klub honetan
egunez inperioaren deskonposizioa eguzkipean
gauez oilategiko gorotza diseinuzko altzairuetan
lentzeria finena eta jokaera zakarrenak elkarrekin
itsas pasealekuan mota orotako substantzia
andeatuak
gazteak gara baina ez gara txoroak
kanpotarrak bai baina badaramagu denbora lur
hauetan
asfalto eta baldosa arrakalatuetan
txakurrak eta katuak belarriak tente
horrela ez dago lasai bizitzerik
hau ez da guretzako modukoa
gaixotasun pandemiko geldiezina areagotzen ari da
eta makillatua agertzen zaigu heriotzaren aurpegia
jendearen izua eta zoritxarra ez dira postaletan
ageri
ezta ere zabor sakabanatuaren eta pixaren usaina

eraildakoen gorpuzkien gainean arnasten du
inperioak
eta handikeriaren ispilu diren etxe-orratzak altxatu
bere bigarren azalean, bere isiltasun misteriotsuan
ilargiak tomahawk ohoretsuak gordetzen ditu
plastikozko erreplikez inguraturik gaude gu
eta kamiseta bustien lehiaketez
emakume bularrak forma eta tamaina guztietan
ez ordea giza birika zulatu eta zokoratuak
bezainbeste
Eguzki-argiaren Estatuan zein *Pelikanoaren*
Estatuan
igual *Urrezko Estatuan* edo *Izar Bakartiaren*
Estatuan
egunero morroi fidelak sortzen ditu diruak
eta silikonak ere bai.

DESOREKA ALATZEN

Ozenegi dago musika
gertuegi dago eguzkia

zure begiek hitz gehiegi
egiten dute esaten dutenerako
zure begiek negar gehiegi
egiten dute sentitzen dutenerako

laburregia da bizitza
gozamenean dabilenarentzat
astunegi doa bizitza
sufrimenduaren gatibuarentzat

kirrinkari datoz soinuak
erregarri daude argiak

nekatu egiten nau zure energiak
baina ez zure asperdurak bezainbeste
haurregiak dira helduak
eta helduegiak haurrak

gehiegizkoa da hau dena
demasekoa zait ahalegina

laiak arrastaka bizkar gainean
pianoaren hortz-hagin hautsiak baratzean
apalegi dator kantua
lehorregi gure esperantza

BROJUAK EGUN MADARIKATUAN

Balkoian maindirea astintzean
indarrik ez besoetan.
Gure umea izatekoa zena
galdu egin dugu gaur.

Balea zaharraren arnas ufada kiratsuak
betetzen ditu etxeko txoko bakoitzaren birikak.
Itsasotik datorren ipar haizeak
ez daki gure bihotzak leuntzen.

Maitasunaren branka-ziri gatzatuaren gainean
atseden bila pausatzearekin batera
euren senetik zeharo aterata
bortizki mokoka hasi dira brojuak
elkarri begiak atera nahian.
Nazkagarria da ikuskizuna
zulatuta daukat arima.

Aringarria bada negarra

etor dadila lehenbailehen.
Borondatea besterik ez da
urratsak ematen dituena.

Baina ni istinkari eskasa izanik
berriz ere iztuparekin eta galipotarekin
egin beharko dut saiakera
gure ontziko juntak zigilatu aurretik
barruko ur zingiratua
putzu zikin hau!
ondo txukatzea ahaztu gabe.

«Aurrerantz egiten da bizitza»
hala esaten diet sarritan besteei
maiz errepikatu ohi dut lelo bera
erruz gorroto ditudan arren berritsuak.

Erori eta altxa eta erori eta altxa
tinko jardutera derrigortuta nago gaur
malapartatua ni: itsasarotz kaxkarra!
Garrantzitsua den oro bezala
bizitza ez da sekula
teoria kontu bat izango.

Muxu goibelak bailiran
odol markak maindirean.
Berorrekin bildu nahi nuke bihotza
eta txalupa batean bultza itsaso zabalera.

Badoaz brojuak hegada baldarrez.
Batzuek begia galdu dute
beste batzuek begiratua eta ikuspegia
beharko ditugu berreskuratu.

Lasai indartsu aske
iritsiko da guregana
sortuko guregan
taupada berri bat
ontzi kuttun honen malkoak
idortu
eta zirrikitu zitalenak
ganoraz eta adorez ixteaz
batera.

TRANSMUTAZIOAN

artilezko txano zirtzilduak
heroinazale berriak aireportuko lurreratze pistan
lepo-hezurrak puskatuta dituzten eskalatzaileak

atearen bi aldeetan performance berdinak
erregea ez dago lo eta ez dago esna erregina
hortzordeak champagne kopan

nire buruko monje budista immolatzear
hatzen artean zotz txinatar zorroztuegiak
itsuak ez du negarrik egiten tipula mozterakoan

anaia siamdar mozkorrek ze bide hartu ez dakite
norekin hitz egiterik ez dute bentrilokuoek
limoiondoak hasi dira udareak ematen

bihotz taupada bakoitzarekin
saguzarrak jaiotzen dira
gure barneko katedralean

erotismorik gabeko irudimen urriko gauak
euren autorretratuez maitemintzen diren
margolariak
sexualitate zargalduen erakustareto ezkutuak

marrazoak noraezean isatsa zakar astintzen
fosforozko aurpegien aurka
lastozko jainkotasunen aurka

indarkeriari esker bizi gara
eta lapurtutako krabelinei esker

zatoz niregana bizitzari buruz hitz egitera
zatoz nirekin heriotza ehizatzera

elkarri eskua emanda desagertu dira
inozentzia eta mirespena

ONGI ETORRI ABERATSEN AUZUNERA

Hiribidetik beherantz noa
arrebak egindako jertsearekin
sukarra babestuta.
Aberatsen auzuneko
apartamentu honetan
ez dira sekula falta
anfetaminak eta kakahueteak.
Fraide apostaten apain-mahaietan
falta ez diren bezala
azido lisergikoz betetako
flaskoak eta ur bedeinkatua.
Gaueko errege bilakatutako
santuen aldare pribatuetan
higiezinetako inbertsioez
mintzatzen dira ezker eta eskuin
ordenagailu bitartezko kirol apustuez
erosteko asmoa duten sedan berriaz
eta bikotekideak nola eta norekin
engainatzen dituzten disimulurik gabe.

Kanpoko isiltasunera bueltatzea
besterik ez dut desio
eta nire sukarra libreki paseatzea
arrebak egindako jertsearen besarkadan.
Baina aberatsen auzuneko
apartamentu honetan
gonbidatu aratza
eta menekoa naizenez
nire nortasuna eta
nire borrokak eta
nire aldarrikapenak
gorde egiten ditut
salako alfonbra persiarraren azpian.
Sortzen zaidan galderak ez dit
besterik entzuten uzten:
Aitzakiarik gabeko gizagaixo
guztiz koldarra naiz
ala gaindituta naukan nekeak
zuritu egin dezake
nire harrizko presentzia?

BIZIRIK

hildakoentzat ari da orkestra
eta uzkurtu egin dira
azken muturreraino
bizirik daudenen bihotzak

ballet dantzarien
arintasunarekin liluraturik
nabarmenagoa iruditzen zait
existentziaren pisua

burdinazko barra goria
eskuineko eskuan
itsasontzi deseginaren aingura
ezkerreko eskuan

gustukoak ditut
ausart egindako
errugbiko plakatzeak

gustukoa dut
fruitu arbolak diruditen
ezezagunekin mintzatzea

gustukoa dut
gorputz biluzi bat
urpean igerian ikustea

ARGAZKI ALBUM BEREAN

gautzen ari ziren bere begiak
metropoliko argi guratsu
baina sarkorregiekin batera

luxuzko auto hartako eserlekuetan
kolore eta ikur desberdineko pilulak eta
tekno musika eta trajeek eta soinekoek
zilarrezkoak ziruditen

edo zilarrezkoak izaki
eboluzio-prozesuak itxura aldetik ere
berdin mantentzen dira
eta diru-goseak munstroak ditu naroki erditzen
paradisuan antropofagoen arteko gutunak
hezurduren arteko mintzoa
hotzaren hozkada
haragiaren arrailduretan
espirituarekin bat egiterik ez

zilarrezkoak ziruditen neskaren begiek ere

konpultsioz bere buruari plazera ematen aritu
ondoren
antzutasun gordinaren irudia zela jabetu nintzen
arte

bere bakardade sendaezinak
tximista bailitzan zeharkatu ninduen
eta ziztrin sentitu nuen nire gorpuztasuna

erlauntza zen plazan urtzen ari ziren oinezkoak
metroaren sarreratik beherantz
koipe zikin eta lodiaren eran desagertzen
gure benetako izatearen arrastoa

barne-negarrak erre egiten gaitu eta arima kiskali
eguzkiaren erraien gorroto eta kapritxora dagoen
alderantzikatutako giza azala bezala
haurtxo baten azala bezala

goizaldean etorkizuna irakurtzen aritu zitzaigun
neska
muesliaz loditutako soja esne katilukada edan eta
gero
bizitza oro argazki baten ameskeria besterik ez dela

argazki album berean gaudela
zangen antzera uretan murgiltzen garela
janariaren bila
hustasunaren biolentziak beti erakarriko gaituela
entzutearekin
desagertu nintzen lanbroan.

KOTOIZKOAK EZ GARENEZ

Lagunen gitarrak lurperatzen,
hautsez betetako hodeiei aiztoa sartzen,
gorpuzgabea da nire bihotza.
Etereoak dira nigan gehien pisatzen duten
sentipen amorfo hauek.

Aurpegi despoten kontra
jaurtitzen ditut izotz-orratzak.
Manipulazioaren festa jendetsuan
egiaren kutxa txikiak bilatzen ditut,
eskuz landutako altxorrak.

Blaituta dakarzkit hezur eta gihar asegabeak.
Koipetsua da errealitatearen listu lodia.
Arrastaka ikusten nauzun arren
aspaldian uko egin nion eskean ibiltzeari
eta, nonbait, harritu egiten zaitu horrek.

Zain gaude beti gizakiok, beti esperoan.
Zeharkaldi honek badu zerbait onik:
arimaren eskasiak ikusi ahal izateko aukera.
Eskuak ez dauzkat ez loturik ez apurturik.
Nire antzekoa den norbait da nire gidaria.

Zuk nahiago duzu asmakizun jokoetan jardun.
Baina parke hauek ez dira oihanak.
Zure mundua zilarrezko argiontziz jantzita dago,
nirean iluntasunak oraindik badaki
kandela txiki aski ederrak pizten.

Nik nahi dudanean atera ahalko ditut lurpetik
nire lagunen gitarra magikoak.
Zer da zuk lurpetik atera dezakezuna?
Modako arropak eta hortz zurituak?
Aurpegia irineztatzeko partikulak?

Bitxi eta esaldi nekagarriak?
Ideia eta portaera kulunkariak?
Munduan barrena biltzeko era hori
boladan dagoen estiloa delakoan
zaku-lasterketa batean diharduzu.

Oraindik ere espaloi gehiegi dago
garbiketa xume baten premian.
Garrantzitsuagoak dira
atzamarrak eraztunak baino,
haize leuna betileak baino.

SUGE KOPULATIK SORTUTAKO UNIBERTSOA

destripatzaileen gotorlekua
bahitzaileen kasinoa
torturatzaileen bainuetxea
tenienteen kortijoa
latifundisten armategia
bizkartzainen garita
mendekatien sator-zuloa
hiltzaileen txaleta

gorteko maskara dantza pribatuak
artile eta fede merkatarien chaise longueak
felpaz forratutako mingain zurituak
eraztunez jositako hatz purpurak
etiketaz jantzitako garezur zulatuak
ustiapen zoroaren apaingarriak

irakasleen eta liburutegien garbiketa prozesua
inoiz bukatu ote zen galdezka nabil neure kabutan
eta ea itaunketarekin noizbait amaituko ote dudan

gorotza pixa odola eta bolbora usaina
ospitale psikiatrikoan
kaperak bailiran mozorrotutako ziegak
kakatza historia liburuetan
milaka hestegorri itxietan
poema debekatuak hortzik gabeko ahotan
agure nekagaitzaren memoria
arrastaka iritsi da garaile
aulki kulunkarira

LEHEN ATUNAREN BIHOTZA

Urtero, lehen marean atzemandako lehen atuna labanaz zakatzen erdigunetik beherantz irekiko zuen,
segidan bere marinel esku zakar-sendoak, abilak bezain zintzoak, ebakiduran sartu urte oso batez espero isilean mantendutako irrikaz —tiraldi ziurraz baliatuz— arrainari piramide itxurako bihotz leuna erraietatik ateratzearren, eta ondoren, eskifaiaren poztasunaren eta konplizitatezko begiradaren aurrean,
hantxe, kubiertan bertan, zaka-zaka gordinik jan.

Erritua. Erritua. Erritua.

Gerlaria bailitzan, garaitua izan denaren muinaz jabetzearekin batera, aurkariaren —itsaso zabaleko gainontzeko atunen— arimaren, izatasun menderakaitzaren makaltzea bilatzen. Bai, zinez zantzu ona hasi berria den arrantzu-aldirako,

hasi berria den urteroko borroka gogorrerako.
Nor da hemen indartsuena? Nor da hemen nagusia?
Dagoeneko marinel-gerlariaren hortzetan,
ahoan, hesteetan, zainetan, odolean,
ikur eta mezu bihurtu da atun-bihotza.

Itsasgizonen artean badira hainbat egite eta uste
lehorreko gizaki zibilizatuak sekula ere ulertuko
ez dituenak, are gutxiago bere barne-mamian
bizituko;
eta berak asabengandik jasotakoa urtero zintzoki
bete baino ezin, txotxua zeneko garai urruna ezkero.

Lehen atunaren azken bihotz apurrak ardoaren
laguntzaz eztarritik behera bultza, txopan bakarrik
jarri, eta itsasoaren erdian errezo isila eskainiko
zion
Guadalupeko Amari. Gero, tristura misteriotsu
moduko
batean bildutako solemnitatean, ezinbestean
errespetatu
beharreko bakardadean, itsasoari, haizeari, bere
buruari,

inori —askatasun-gudu-bake-barkamen himnoak balira
bezala— bata bestearen atzetik rantxerak ozen kantatu.

Erritua. Erritua. Erritua.

Lehen atunaren bihotza irentsi!
Lehen atunaren bihotza gordinik jan!

OINUTSIK
(AMORE EMAN GABE)

Oinutsik egin nuen lasterka
(itxaropenik gabe, onartzen dut);
elurrak baimendu zidan
distantzia bete nuen
lehertuta erori nintzen arte,
lihozko tendoiak, letoizko bihotza,
goroldiozko gibelaren jabea eta
morroia den korrikalariaren antzera,
amodioz eta gorrotoz
arimako orbanei oratuz
orratz luzezko gau eskeletikoan,
burdina zaharrezko, eserleku kiratsuzko
taxiren batera igotzeko aukerarik gabe;
elkarrizketak sumatzen nituen
zabalik zeuden leihoetan,
antzematen nuen azala gogortzen eta
gogoa zakartzen ari zitzaizkidala
(zer den arrastakari arrunta bilakatzea!);
banketxe eta botiketako fatxadetan

termometro digitalek
nik bederen uler nezakeen
deus ere ez zuten adierazten,
berriro altxa eta
oinutsik lasterka segitu nuenean

SABAIKO HATZ MARKA KOPETAN

Eguzkiak ezin du izozkia jan,
ilargiak ezin du lo hartu,
tantak uretan igerian dabiltza,
azalak miragarria zaidan moduan
gorputza bere osotasunean estaltzen jarraitzen du.
Giza gurutze forman etzanda nago lurrean,
tupustean okil bat sartu da sarraila-zulotik eta
indarrez mokokatu nau bularrezurrean,
deus kontatu ez diodanez amore eman duen arte.
Nork nahi du benetan egia jakin,
hau porrota denean, eta maitasun pittin bat,
eta atomo desorientatuak, eta ezer gutxi gehiago?
Hazten ari da konplexutasunen trinkotasuna,
hustasuna bi eskuez elikatzen darraiela.
Hartu-emanetan galvanizatzen zait nerbio-sistema
eta argi izpia sukalde hutsean sartzen den
erraztasunez
badira garuna zeharkatzen didaten daratulu
ankerrak.

Desegin egin dut nire gurutze forma zurruna,
zutitu egin naiz pixkanaka,
minduta daukat bularraren erdigunea.
Lekak zuritzeari ekiteaz batera
zuhaitza den nire burura igotzen ari zait haurtzaroa.

MUNDU PARALELOAK

1

Parez pare Bonantzako elizaren ateari begira jarri orduko zure silueta eta irribarre berezia agertu zaizkit gogoan. Begiak ixteaz batera gure forma biak bakar batean marraztu ditut —irudi sakratua—.

Bat-batean, sarkor: hiltegiko usain ekidinezina. Tenore haietan bezalaxe bizkarrean bainuen, bi metro eskasera, atea erdi zabalik eta animaliak betiko modura goitik behera ebakita, zintzilik, barruak hustuta —giza jainkotegi kirasdun usteldua bailitzan—, erraiak eta odola isurtzen kanaleko uretara.

Eta garai hartan ohi nuenez, ur gorrietara zuzendu dut soa —milaka bihotzen ispilu urtua—, eta zart!, ikuste ubelduak abiarazi du ene gibelaren marrua: «Inork ez du nire amestea burdin kako batetik sekula zintzilikatuko!».

2

Zurrunatik gora eta behera, Jaizkibelgo magal ezkutuenean satorren antzera, bizpahiru mukitsu mundu

paraleloen bila. Eta gero, xaian edo kai gainean, amona eta gainontzeko saregileen esku nekaezinen alboan, beti zirika, beti ez ordea jolasean, bizitzari instantero ezkata lehorrak apartatzen —itsasoaren arrastoak nonahi —, orduan garatu zitzaizkigun, biriken ordez, zakatz hauek.

Gu ez baikara guztiz lehorrekoak, ezin bestelako moduan izan. Berun puskak eta amu herdoilduak, aborinak eta labanak, zurda korapilatuak... betiere zerbait patrikeran... arbasoen tresneria, bizimodu jakin baten altxorrak, gure sekretu isil estimatuenak.

3

Ez da nire desioa atzera bueltatzea, zentzumenen ernea sekula ez galtzea baino, maiz etor dadila oroimenaren besarkada beroa niregana eta laga nazala gaurkoan gisara sentimenduz plei eginda, belaunak eta zilborrak geratzen zitzaizkigun eran San Migeletako ur bizietan, eta aurki bitez sarritan pizturik harriduraren argia eta distira gure haur-begietan, ferry ingeles erraldoi txuri hark —*Panther* izena datorkit beti gogora, hala bazen edo ez bazen— kanal osoa betetzen zuen alditan bezalaxe, gu gasolioz zikindutako uretatik txistu bizian ateraraziz, Pasai San Pedroko

etxeak bere munstro-bizkar atzean desagertzen zirelarik, San Juango gureak jostailuzkoak ziruditen bitartean ur gaineko mirari tzarraren aldean, sekula baino estuagoak, erabat hauskorrak, zeharo txikiak, eta beti bezala paperezkoak mendiko harkaitzen mendeetako mehatxuaren azpian.

Plazako gure bizitoki heze, xume, antzinakoak, kanaleko sarreran leherrarazten zituzten barrenuekin dardar bizian jartzen ziren, nire gorputzaren modura gauaren eskutik zuregana hurbiltzerakoan.

4

Orain Denbora ez dela urteetan zelatan eta atzaparka aritu zaidan piztia itogarria, ezti mintzo zaizkit olatuak eta absentziak, eta honela izatearen lengoaiaz elikatzen ari da ene arima, bare-bare.

Itsasertzeko itzala besterik ezagutu ez duen harehar-ri umelaren usain gazia jariatzen dut sarritan, Pisbeko horma gastatuen usain berbera, Ternuako bidaiek zein hauek guretzat lagatako elezaharrek bakailao arrasto itsaskorraren usain eternala; horrelakoetan barneak arroketarako bidexka hartzera bultzatzen nau, Puntaserantz, atzean utzita plazako paretan pilota kolpe galduen oihartzuna, eta kexa zaharrak eta

asmo berriak tabernetako mingain eta hortz-haginetan.

Labana zorrozten dut arrokaren kontra, urteetako arraspatzearen soinua, zenbat eta higatuago orduan eta hobe ebakitzen —durduzatu egiten duen zorrotza—, ohiko moduan, hatz puntak emaitzarekin kontent geratu dela esaten didanean, ganibeta bueltan patrikeran sartu eta, berriz ere, Denborari oinak eta eskuak moztuz, begiak itxi eta kopetaren barnealdean gure silueta biak —existitzen al dira soin eta adar mutaezinak?, nora ote dira gorputz hautsezinak?— bakar batean marrazteko.

* * *

Aitonaren sare hezearen gainean gaude. Denboraren edabe pozoitsuak inolako eraginik ez gugan. Haurraren eta aurrerago gaztetxoaren zentzumenek jaso eta jositako arnasa eta korapiloa nigan dira oraindik, gaur ezin biziago. Oin biluzien dantza mingarri-gozoa, isila, sekretua, arroken azal ziztatzailean. Itsaso urruneko uhina, eta berdin zure adats eta garondoko usaina, bidezidor honetan, betirako.

EBAKUNTZAREN ERDIAN

behingoz hasi
behingoz lehertu
ezeren truke deus
joan eta hartu
ametsak gauzatu
ezeren truke deus
dena aurkitzeko
geografia zaharrak
altxor berriak
eskuak zure esku
etorri eta egin
ametsak gozatu
ezeren truke deus
dena txikitzeko
bi minutu baino ez
beldurrak irentsi
desioak piztu
oinazeak sutan erre
ebakuntzaren erdian
atsedenik ez

EGURREZKO BALEA

nire eskutik ur oxigenatua edan du tximeletak
eta zure bular punta gainean pausatu da gero
baina gure piknolepsian
hain urrun sentitzen naiz berehalakotasunetik
ez bainaiz ohartu ere egiten naizen absentziaz

kizkurgailuak jarri ditu sagarrondoak
ederki hazita daude artasoroak
dagoeneko esanahi berezirik ez duen
aspaldi hondoratutako ontziaren saihetsak ageri dira
itsasoari irmo heltzen dion errekastoan

baina geu gara hemen ezdeusen artean ezdeusenak
uraren eguzkiaren denboraren joanaren eraginez
usteldutako egurrezko zain horiek baino
lehenago ere desagertuko garenez

lo dagoen balea gosekila dirudi
ikusi nahi ez gaituen arbasoaren aurpegi bizigabea
padurako lohiarekin bat eginda

urteetan poliki-poliki ezkutatzen joan zaigun arima

ez baitu ezer gehiago ikusi nahi inoiz ez berriro
ezta tximeleta hau ere: horia txuria eta beltza
nire eskutik rona edaten duena eta gero
zure beste bular puntan pausatzen dena
ezin arinago ezin leunago

sekuentzia neure begien aurrean gertatzen den
arren
kloroformatuta nagoela iruditzen zait
jada igarri ezin diren iltzez eta errematxez beteta
hezur guztiak lehertuta dituen
erdi-balea konortegabearen gisara
loturarik ez elkarrizketarik ez
munduaren eta nire artean

eta konturatzerako bueltatu egin behar
ordenagailuen burrunba jarraitura
jendetzaren bakardadera
entzungailuen gortasunera
bizkarren arteko kortxozko besarkadara
alaitasunaren otarre lainotsura

laster igoko da marea
ilargi betean bizi gara
eta denbora tarte labur baten ondoren
hazi egingo da moztu berria den belardi hau
eta inoiz udako arratsalde bat hementxe
bizi izan ez bagenu bezalakoa izango da

ZURE ZAIN

Hemendik begira ari naiz, aita,
adi-adi begira buruko brankatik
uhinen mugimenduetan betirako kulunkan
geratu diren hegaztien luma zuri eta beltzei
gure itsaso zabalaren oihal aldakorrari.

Kafe kikara beroa prest dudala
sukaldeko sabaizulotik zuri zubira pasatzeko
adi-adi begira nago buruko brankatik
baleen atunen izurdeen dotoreziari.

Noiz paratuko ote didazu eskua berriro
itsasoa den nire ariman?
indartsuagoak baina umilagoak ere egiten gaituen
uhin zakarren arteko dantzatze eternal honetan.

Zira eta aurpegia bustita dauzkat osorik
sonarraren eta beste maxinen zarata itoa iristen zait
oin puntetan jarrita deika ari natzaizu alferrik antza
inoiz ez bada ere deus alferrikakoa izan gure artean

inoiz deus ez baita izan alferrikakoa itsasoan.

Hortentsia more urdin urre grisez jantzitako itsasoa
erretxinazko pentsamendu zailez bernizatutako
itsasoa
negar zauri neke itxaropen eta ametsezko itsasoa
zu bezalaxe atsedenik ezagutzen ez duena

zu bezalaxe hauskaitza, zu, aita-patroia,
hainbeste familiaren ogiaren erantzulea
beti itsasoarekin borrokan beti xake partidan
bataren sena jakinduria ausardia bestearen legea.

Kasketaldietan gobernaezina
barealdietan sehaska kanta goxoen iturria
ezinbestean gorrotagarria derrigorrez maitagarria
haur jostalaria eta piztia menderakaitza

lehen orain beti
itsasoa, aita, itsasoa.

PADURAN ATSEDEN HARTZEN

Musker egartsua
Harrian mimetizatuta
Fosil bat burezurrean bezala

Hego haizeak gidatzen du
Padurako ihien koreografia
Lo arinean dago arratsaldea

Nire bihotza
Lurra atzaparkatzen
Basurde erotuaren antzera

Urrezko zauriei esker
Ibilera berrietan
Murgildu zait gogoa

Te berdeko errekak
Freskatzen dizkidala
Oinak eta barnea

Aterki puskatu bat ekarri du
Harrotzen hasia den haizeak
Eta begi bat galdu dut kasik
Datorren legez doa egia

Oraintxe bertan ordea
Bakean nago euliekin
Bakean nire ekaitzekin
Nirekin bakean

INTIMITATEA BI ALDITAN

Ustelduak gurutzera iltzatuak
birjinak eta militarrak
ia historiaren bilakaera bihurritzen
aldare eta sakrifizioekin
hutsuneari erantzuna
zitalkeriaren lotsa arrazionala
ehun beldarren desfile militarra
bisturiarekin mingain azpian.
Faltsukeriaz ari gara, ulertzen?

Garrasi irrigarrien aterkien babesean
Felliniren zabura igo nahian
jarraika film pornoak ikusi ondoren
eta irakurri autolaguntza liburuak
ezin utzi diozu pentsatzeari
ez zaituela inork deitu
apartamentua laga zenuenetik
arropa perfektua erosi
eta masa-kulturarentzat

ikono edo antzeko zerbait
bihurtzeko asmoarekin.

Ospeaz ari gara, noski.
Modernitatearen mutur tristeenean
arriskuko amu kosmetiko hori
gizaki moldakorren gosarian esertzeagatik
uko egiten badiozu zure buruari
munduan zehar ibilita ere
apar berdatsa besterik ez zara izanen
itzulerarik gabeko orbita batean.

Itotakoak irribarreak bortxatzen
gorbata marradunen lepoen aurrean
jakin badakizu bezero bat zarela
eta ahozko komunikazioak
ez duela harremanik ziurtatzen
izan gogoan gehienez bi alditan
ezagutuko duzula intimitatea zure bizitzan
isiltasunean ulertuak izatea oihukatzen
bularra hartzen duten sugeak
etengabe sehaskatik erortzen
zirujau plastikoz betetako
diseinuzko jauretxea besterik ez da.

Hainbeste zilbor eta zango zabalik ikusi eta gero
orain barne-hezurrak baino ez omen dituzu bilatzen.
Nik diotsut: zure irribarrea zeharo da birtuala
erreala bezainbestekoa zure bakardadea.

Gose dagoen bakoitzean
zurea izan zen emazte makillatuak
garrasi egiten du: Urdanga bat naiz!

Txakur bat igaro da 7-Eleven baten aurretik
eta indartsua begitandu zait irudia
arruntasun eta kokatu ezin honen immanentzia
eta lur gaineko gasolioa usaintzeko geratu egin da
zurea izan zen emazteak
negar malkotan aitortzen didanean
gimnasiora ez zela gorputza lantzeko joaten
bere espirituarekin mintzatzeko baino
beti goizeko zazpietan
beti aurpegi berberak
izkina bakoitzean telebista bana martxan
MTVko musika-klipak
bata bestearen atzetik ezin ozenago
tramankulu sinestezinen iragarkiez tartekaturik

modaz pasatutako orrazkerekin saltzaileak
eta aktore izandakoak, famatuak batzuk,
«nork ez ditu gustuko aktore izandakoak?» dio
pantaila horiek... kamera zaindariak legez beti
begira
debekatutako alkohola eta beldurra
izerditzen zituen bitartean
zure izena aipatzeko gai ez zenetik
«eguna hasteko beste modu bat baino ez» dio
aldameneko kale kantoian
lau donuts irensten dituenaren pareko izate-abuliaz.

Zure bakartasuna berreskuratu nahian
berorrekin zer egingo zenukeen ez dakizula diotsut
supermerkatuetan erostezina den bakartasun hori
are gutxiago antolatuta datozen oporretan
azken batean profesio bat izaten jarraitzen du
atentzioa deitzen ibiltzeak
eta zu harrapatuta zaude
existentzia oso bat trajez jantzita
erabateko menpekotasunean
ezin barne-ekintzen munduan berriro hasi
zure esentziaren eta izaeraren aldartea
jada ez dago zure eskuetan

primerakoa da zure gorbaten bilduma
baina landareak eta pertsonak eta ezagutza
zaintzen ez duzu sekula jakin.

Gurutzera iltzatutako ustelduen artean
gaizki ulertutako sakrifizioa
zure akidurak eta bilatze ilunak taupaka darraite
zirujau plastikoz betetako
diseinuzko jauretxe garaieneko hallean
maitatzen eta gorrotatzen duzun
mundu inpertsonal honetan
gehienez bi alditan
ezagutuko duzu intimitatea
eta terapeutak ez zaitu salbatuko
non eta azkenean ez duzun
errealitatea aukeratzen
fikzioa elikatu ordez
eta dosiak handitzen doaz
eta dosiak handitzen doaz
gurutzera iltzatutako ustelduen artean.

SAGAR ERREAK

begiak erortzen ari dira leihoetatik
berunezko apareju arnasgabeak
kaosaren premia edukiko dugu
zentzua berreskuratzekotan bagara
neurtuta daude milimetro guztiak
jaberen bat du milimetro bakoitzak
jaurti itzazue lanparak kanpora
ausiki igeltsuzko mingainak
erreskatatu ezkata biguneko arima lapurtuak
ospatu porrotak ardo bikainenekin
moztu mahukak maiestatearen trajeei
maitatu leporik gabeko izaki baztertuak
lau hanketan bada ere bila ezazue duintasuna
ez dute nahikoa irabazten piano afinatzaileek
garestiegi saltzen dituzte barazkiak
mimoak kopetako ilea moztu dio pailazoari
sagar erreak jaten ditu oilar berritsuak
izkinako kafetegi izerditsuan

IRAGARKI SENTSUALAK ETA KALE HOTZAK (GORROTO DITUT ESTANKOAK)

Mando-Buru obsesionatuta zegoen zuri-beltzezko iragarki horrekin: neska beltzaran itzela barruko arropaz, sentsualtasunez gorputza luzatzen sofa baten gainean, mudantza enpresa bateko langile estralurtar batek izartegitik jaurti izan balu bezala, edo imajinazio eskaseko publizista hantuste batek atera bere amonaren ganbaratik. Bitartean poliziek gas negar-eragilea jaurtitzen ziharduten eta denok ziztu bizian alde egin genuen norabide desberdinetan, bakoitzak bere buru partikular biologikoki arras kutsatua gainean eramanez derrigorrez; Mando-Buru, baina, ez zegoen erresoluzio goreneko pantaila erraldoi ultralauaren aurretik mugitzeko prest, eta poliziari ez zitzaion batere axola han bertan itoko balitz ere, eta Mando-Buru berari ere gutxi kezkatzen zion auzoko estankora sekula santan berriro ezin bueltatu ahal izatea, eta desira orokor, nazioarteko, kosmiko, unibertsal bihurtutako estrategikoki jantzi/ez-jantzitako

lentzeriarekin batera paregabeko gorputz desiragarriaren edertasun zoragarri bezain zirraragarria luzatzen zirauen emakume itzelari are gutxiago axola zitzaion Mando-Bururen zuzen-zuzeneko heriotza —hala balitz—, inoiz ezagutzeko aukerarik izan ez zuen eta izango ez duen alproja kaskagogor hori. Ze benetako zortea izango bailitzateke, bientzat (arrazoi desberdinak direla-eta), elkar ezagutu ahal izatea, diot. Eta nik bere azken paketea neraman azken lau zigarroekin polizien porra beltzei ihes egin, uniformeei listua bota, besoei ausiki egin, izerdiak jasan, erremina begietan, hau guztia Jeronimoren erara garrasi egin ondoren, hau guztia nire neska ez zen nire neska bazter batean salbu laga ondoren (hori zen behintzat nire asmoa), eta lasterketa eroan, nola diren gauzak, besterik gabe gogora etorri zitzaizkidan zenbait esaldi solte mordoilo bezain nahasgarri (dena esan behar bada) aurreko gauean fisika kuantikoari buruzko dokumentalean entzundakoak erdi-lo nengoela, beso ezezagun bik besarkatu nindutenean (batek daki zer intentzioz), ikur eta forma maori bikainak tindatuak zituztenak, Mando-Buru itsututa zeukan iragarkiko neska liluragarriaren kasik erreplika doia zen gorputz emearen osagarri eta luzapen ziren besoak.

Baina nirea ez zen nire neska bai zen guztiz erreala (pittin bat errealegia nire gusturako), eta ni ez nengoen obsesionatuta, izan ere ez nengoen batere obsesionatuta; are gehiago, ez nago; (aise ken dezaket gogotik nire buru honetan immanentziarik ez duen oro). Iraganean obsesioak jokaldi makurrak pasarazi zizkidan, eta hori bada berriro nozitzeko prest ez nagoen zerbait, berriro gertatuko ez zaidan zerbait. Ziur (erabat), aurretik eguzki egunak eta euri egunak zain ditudan bezalaxe. Orain nire zerebroak hau guztia derrepentean jaurtitzen du, batzuetan metraileta baita, beste zenbaitzuetan idazluma loti eta nagia, arkatz kamutsa maiz, tarteka zuhaitzetik erori berria den melokotoia baino ez, Mando-Bururena zen azken zigarretari erretzeari ekiten diodan bitartean. Hil egin ote zen edo ziegan epaiketaren zain ote dagoen jakiterik ez. Bion arteko komunikazioa hutsaldu egin da; oro har, aldamenekoa zaidan guztiarekin eta guztiekin beste hainbeste gertatzen ari zait aspaldiko aldi honetan; egunerokoan bizitzen ditudan misteriozko prozesuak. Sentitze hau gero eta sarritasun nabarmenagoz eta zorroztasun handiagoz nigan dudan zerbait izanik, ezin esan hala ere arduratuta naukanik, eta hasiera bateko harridura puntua bere baitan natural-

tasun osoz gainbeheran doakit gainera. Erresistentziarik jarri gabe eta inori esplikaziorik eskatu gabe, norberak —etsi onean—, aurtengo Tourreko edizio partikularreko tropelean dagokion tokia onartuko balu bezala. Ahalegina eta asmoak, ametsekin eta desioekin gertatzen den lez, ez dira konparatzeko kontuak. Norbera merkatugai desberdin bat da, horixe da dena, ez dago eta izango ere ez askoz gehiago ulertu beharrekorik. Izan ere, ni neu hil ote naizen edo epaiketaren zain nagoen ere ez dakit, eta deus jakiteko presa berezirik ez badut ere, serioski nago kezkatuta Mando-Bururen paraderoarekin, azken finean nire laguna baita, eta baimenik gabe ari naiz bere zigarretak erretzen. Nire alde, ordea, zera esango dut: Oraindik ere, zorionez, horrelako egite eta kontuak adiskidetasunari inplizituki itsatsita daude. Ez, ez naiz axolagabe ziztrina; «ez behintzat beste edozein baino gehiago», jendeak esan ohi duen bezala (gorroto dut jendeak esan ohi duena). Niri dagokidanez, jakin ezazue ondo nagoela honela, honela gaur nagoen moduan. Telebista piztu dut eta hortxe agertu zait zuri-beltzezko neska bere gorputz zinbela azkenaldiko era berdin-berdinean sofaren gainean erotismo handiz (gaurkoan hunkiberegia nago nonbait) luzatzen

duela. Dena azkarregi gertatzen da, pantailaren bi aldeetan, eta dena errepikatzen; bitxia, ezta? Teoriaren bat norbaitek? Dena errepikatu ere oraingoan, nire oinarrizko lehen erreakzioa izan ezik. Hain jarraian, hain denbora gutxian pantailan neskaren hainbesteko agertze honek publizista aluek bilatzen duten eragina izan al du azkenik nire buruan bete-betean? Edo nire gaurko aldarte kontua besterik ez ote da? Auskalo, ez dakit, eta sakontzeko umorerik ere ez; zigarreta bakarra geratzen zait. Ziurtasunarekin erasotzen nauen informazioarekin jasaten dudan antzeko bilakabidean bizi naiz..., bizi naiz. Bai, oraindik bizi naiz, antza. Non ote dago Mando-Buru? Gorroto ditut estankoak.

TENORE URDINA, TENORE UBELA

Gauero
zirikatu egiten nau Lazarok
platuxak, perloiak, orratzak
nire hareazko bularrean
eroaldi errepikakorrean
isatsak astintzen dabiltzala
anbarezko ordu zeharkaezin hauetan
arbasoen ekaitz-arrantza
sakratuen loriarekin
akabatu nahi dutenak
isilean kresal-lore ederrak
hazten ari zaizkidan bitartean.

«Gerokoa ez da gurea»
esaten zuen amonak.
«Baina bai une honetako
bihotza eta adats luze urdina»
dio goiztiriari izurik gabe
nire barne-aho bendatuak

denborak bere odol ubela
isurtzen jarraitzen duela
leiho zabaletatik eta
teilatu puskatuetatik.

Erramu adaxka lehorrak
kantu zahar ahaztezinak.
Eta karranka itsasontziak
tinko amarraturik neguko kaiari.

Haien errautsen gainean
biluzik flotatzen duten gizaki akituak
ikusten ditut iluntasunean
lur azpian igeri egin nahian dabiltzan
argizari, hezur eta zetazko
ume begirik gabeak

Gauero
zirikatu egiten nau Lazarok
baina ikaratia da bere ahotsa
hutsala bere asmoa
nire uhinen artean.

OSTRUKAREN LEPOA

ebakuntzarako tresneria
esterilizatua dago
    sabelaren zirkuluan
    sekretuen bila dabiltza inurriak

buruko mikrofonoak
itzalita daude
    doi-doi objektiboaren gainean
    eroriko dira estalaktitak

goizaldeko laurak
kanpandorrean jotzen dutenean
    haur literatura existitzen den arren
    amesgaiztoek ez dute adinik izango

belarri zabalen eta
belarri motzen basoan
    gauak gure begi-zuloak ditu
    igeltsuzko ilargiak izarrak malkoak

ostrukaren lepoak
neurtzen du mundua
    eta ezin gizakiaren eskizofreniarekin asmatu
    eta ezin burua lur azpian barrurago sartu

FARRA BURLA DA

Dignitatez, duintasun duinaren X. urtemugaren kandela, pufff...!, aire ufada epel batez itzaltzen eta pentsamendu kolpe batez, zorionak, zorionak, zorionak biluzik eta bihotz-hotzik, ile gorriko emakume emankorraren isiltasuna dudala buruan eta bitartean odol herdoilduaren jarioa disimulatzen —basurde zauritua dirudit, benetan, txo— eta dena zirkuko aurkezpen ekitaldiaren parte inora ez doan waltz monotono baten joan-etorriaren erritmoan eta laguntzaz, nanoekin batera —aitak besteei barre egiteari buruz zioenez, «Farra burla da»—, eta gorputza gomazkoa bailitzan bihurritzen duten Ekialdeko miseriatik ihesian etorritako neskatxekin batera, bulgariarrak, eta errumaniarrak, eta Balkanetako bazterretakoak, eta txetxeniarrak ere bai —zein urrun nire ulermen saretik Balkanetako jolastokiak eta armategiak—, eta sortzen, mantentzen, babesten, ezkutatzen, zigortzen dugun egoera hauen nekea, zimikoa eta zimurtasuna barruan, eta izen artistiko bat da eskuratzen duzuna Ekialdekoa izanik dena galdu duzunean, argi gorriko

aterpe, taberna, kobazulo, zirkuetan simaur usaina duen ontzi kolorge batean ezkutuan goitika ari den pailazo negargarriaren alboan, eta bala-gizonaren burukomina neureganatzen, uneoro, eta elbarrien elbarritasuna nigan gorpuzten, eta ez da jokoa, jokorik ez da, etetear dagoen sokaren gainetik anai-arreba bikotearen janzki distiratsuetako poltsikoetako batean, bart sobera geratutako substantzia horixkarekin batera. Hauskortasuna tentagarria da eta krudela da hauskortasuna elbarritasunaren zirkuan. Danbor-arradak, gorputz-dardarak, haurren bihotz-taupada azkarrak, izaki-gizaki-izakin zahartuen arnasestua, oilo-ipurdia, biziraupenaren soka horia tenkatzen doala, eta ez da broma, eta «Farra burla da», sudur zuloetan zerrauts usaina duzula, eta piztien azal eta larru hezeen usaina, izerdia, kiratsa, elefante baten puzkerra, listua hondarrean eta listua eskuetan, giharren akidura, arimaren ahitzea, eta... zainek ez dute zart egin hari ezin meheagoa dirudien sokaren gainean! Beraz, txalo!, txalo bero bat Lituaniako Dimitrov anai-arrebentzat. Ingurura begiratu eta erabat odolgabeak bezain aierukorrak gertatzen zaizkit forma eta kolore bakarrekoak diruditen ikusleen buruak, «poliedrismo funtzionala» pentsatzen dut, eta

bat-batean pentsatu ere zenbaitzuk bizitza eta biziraupenaren arteko orekan beti ere besterik gabe eserita emango dituztela egunak, beste zenbaitzuentzat izate-ekilibrismoa inoiz antzerkia, inoiz espektakulua, izango ez den bitartean. Nire begietan hustasunaren lapitzak zorrozten ari direnak badira eta gure izenak memorizatzen, badaezpada, segurtasun-sareak gure sabelaren forma eta tamaina ahantziko balu, txaloak!, txalo beroak badaezpada. Eskuek batzuetan arrazoiak galtzen baitituzte eta, orduan, dena da erridikulua, burlagarria, higuingarria, mingarria, mundiala den zirku mundialean, non ikusleen eta ikusitakoen artean eratzen den amildegiaren erdigunean, duintasunaren heriotza ez-duinaren urtemugaren magiaren mozorro eta argi distiratsuen bizkarrean, gurasohaur-aitona-amonak txalo bateratuak esnatzen ditu xomorroak, eta pipiak, xomorroak eta narrastiak, xomorroak eta piztiak, baina ez ardura, krokodiloak esna eta erne daude aspalditik, mugitzen ez badira ere, gauez baino ez baitira mugitzen, azalak eta larruak aldatu, eta jaka garestiak janzten dituztenean, eta bitartean emakume bizarduna karabanan larrua jotzen ari da ezpatak irensten dituen sasi-artista mesfidatiarekin, une berean munduko emakume lodienak kope-

taren kontra hautsi berri duen ispiluaren puskak irensten dituela gurpildun ohetik, eta aurkezlearen esmokina kotoiz egindako gehigarriz beteta dago bere elbarritasuna disimulatzearren, eta zuriz pintatua du aurpegia berezkoa den zurbiltasunak artifiziala irudi dezan, eta ezpainak gorri biziz urdintasuna ezkutatze aldera, eta dimitrovtarren zainak izoztuta daude haurrek eta gurasoek eta aitona-amonek orain-dik txalo zaparrada luzatzen dihardutela, eta buruak makurtuz esker oneko keinua egiten dute umil bezain elegante, eta arnasa ahal bezain sakon hartu, baretu bihotzak, pausa luzatu, eskutik helduta gurkera berria egin, biriken mugitze bateratua, aldi berean altxatu buruak, behin berriro irribarrea birfabrikatu, alai agurtu, eta orain bai, orain bai «Jarrai dezala funtzioak!» oihukatzen du aurkezle lepokerrak ikusleen pozerako eta bere lasaitasunerako, zerua sekula ukitzera iritsiko ez den karpa zahar bezain zatartu honen azpian, itxurako dignitatez, duintasun duinaren heriotzaren X. urtemugaren ospakizuna aurrera!, kanpoaldean tximino batek «Aska nazazue!» garrasi egiten duela kaiolaren barrenetik, pixa egitera atera den gizon batek kakahueteak eta irri maltzurra eskaintzen dion bitartean; «Farra burla da»... Eta film

zahar batean Pinocchio astakume bihurtuta, eta ikuskizunaren mesedetan zartailuaren aginduz uztaien barrutik jauzi egitera behartuta datorkit gogora...; eta ez dakit zergatik, ez dakit zergatik irudi ilun horiek artegatu egin nauten txikitatik. Zergatik sarritan esaten zuen aitak: «Farra burla da». Barre egitea burla denean ni zirkuarekin akordatzen naiz. Zergatik gertatu izan zait higuingarria zirkua betidanik? Non dago orain, ama, zingaroa izatearen erromantizismoa? Ez dut disimuluz negarrik egin nahi, ez dut besteen tristuran murgildu nahi, eta, ama, horrexegatik, ez noa zirkura.

UKABIL

Zure sena gauza orori itsatsia
oroimenak gogoari bezala
beldurra hezurrei bezala
oinazea gaixotasunari bezala
denbora uneari

UHIN

urrutitik
iritsi
zait
itsasoa
oinetara
hondar
bustian
hondoratzen
naizen
aldiro
bizitzen
dut
egiazko
arintasunaren
izpia

TERNUA NIRE BARRUAN; BADATOR NEGU LUZEENA

1

Existitzen ez diren zure eskuek
nire kopetara jositako ametsak
negu gordineko isiltasunean gauez
itsaso jelatuaren ertzetik pausoka.

Zuk oso gora hegan egin zenuen egunsentian
nik izartegia zeharkatu nuen biluzik
orain animalia lurtarrak besterik ez gara
sabel zurbilak izotz-hondarrean biraka.

2

Ternuan bada urrutiko bazter bat
Flat Island parajearen inguruan
hilobi multzo txiki bat duena
itsasoaren ertz-ertzean
izenik gabeko bi gurutze apurturekin:
Baby Girl eta *Baby Boy*

eskuz idatzita, besterik ez.

Lurmuturrak eta biziaren loturak
ezabatzen ditu han elurrak.
Esadazu: agure bat,
zakur bat edo mutiko bat
mugiezina den txalupa batean,
zer izan liteke gauzarik txikiena
eremu zabal epiko honetan?
Dena da hain egiazkoa eta arraroa
Ternuari buruz eta zuri buruz
pentsatzen jartzen naizenean.
Ternuako mendebal izoztua
otsailaren gordinenean.

Baby Girl eta *Baby Boy*
itsasertzeko gurutze apurtuetan.
Ozeano zuria, lur zuria,
heriotza zuria, bizitza zuria.
Agure bat, zakur bat, edo mutiko bat
mugiezina den txalupa batean
hodeiertz infinituaren kontra.
Itsasoa lurra da, lurra ozeanoa da,
eta giza arrainak gara gu:

nortasuna, gogoa, izatea,
denboraren gisa urtzen ari den bitartean
bere jatorrira bueltatzeko.

3

Aeroplanoek nola hegan egiten duten
begiratzen geratu naiz:
memoria oihal-pusken antza dute,
airean zuhaitz meharren tankera,
oinik gabeko eskeleto zurbilak dirudite
esku indiarrek egindako
larruzko oinetakoekin
amets egiten dutenak.

Baliteke ni neu bakarrik izatea
hotz izugarri hau sentitzen ari dena.
Nire buruaren imintziozko
interpretatze bitxi batean sartuta nago,
kontu tristea dudarik gabe;
nonbait ahaztuta laga nuen
eremu zabala arnasteko premian nago.
Nolanahi dela, orain, hemen, lurpean
ehortzitako izakiak dira garaileak...

4

Urrutiko zure esku ñimiñoek
nire kopetara jositako ametsak
asmoak galduta dituen hiri batean.

Oraindik aurkitu beharreko amesgaizto berriak
banaketa akatsen pilaketa, arrunta,
oraintxe bertan asko axola duenik ez dirudiena
telebistako harpetarrek
euren istorioak kontatuko baitituzte, ziur,
eta neoizko argiek mozorroen gainean
flotatuko dute ohiko modu soraioan.

Nik ordea
bizirik mantentzen dut
nire urrezko desioa
ez bainaiz, oraindik ez,
nire siluetaren silueta bihurtu;
itsasertzean zehar nabilela
nire pausoak nire eskuei dagozkie.

Hegan diren aeroplanoak eta

Ternua nire barruan,
hegan diren aeroplanoak eta
Ternua nire barruan.

Agure bat, zakur bat edo mutiko bat
mugiezina den txalupa batean.
Esadazu: nor naiz?
Badator negu luzeena.

Baby Girl eta *Baby Boy*
ozeano jelatuari begira jarriak.
Baby Girl eta *Baby Boy*
zoruko ahanztura izoztuan iltzatuak.
Inor ez, inor ez, inor ez.

Bat-batean goialdetik
bi elur-motoren orroa.
Badator negu luzeena,
badator negu luzeena.

Hegan diren aeroplanoak eta
Ternua oraindik ere nire barruan.
Ternua nire barruan.

ISOLAMENDUAREN ZAPORETIK

ikatz-basamortuan begiak erre zaizkien
hegazkinlariak
hauen azken ametsak entzuten dituzten eskorpioiak
asteko zein egun den ez dakiten paraje eta bide
galduak
maskarak eta hanburgesak saltzen dituzten
furgonetak
gurpilik gabeko bizikletak eta irria galdu duten
arimak
giza kaioletan pilatuta gose geratu diren idazlumak
pneumatikoen sugarrei begira dauden langileak
edozein egoeratan oinutsik ibiltzen ikasi duten
lagunak
bakardadearen maitaleak ez du hotzik neguan

gauza ederra da elur lapatsarekin batera ihes egitea
gauza tristea da borondatearen kontra lurra
abandonatzea

haragi sorgorrez gainezka dauden udako
ilunabarretan
apar beltza jariatzen dute koloretako itzalkinek
automutilazioa modan dagoenetik euren hegalak
ebakitzen dihardute arranoek eta kolibriek
adin anitzetako neska-mutilek
lehorreko olatu-kolpeen irensleek
noiz iritsiko ote da pailazo sudurren kargamendu
berria?
eskulturen erakusketan sobera ditut hutsune teoriak
oraindik ere esku txikien premia daukate basaloreek
itzalak pixkanaka luzatzen ari dira eguerdi-
eguerdian
postontzi bakar bat ere ez dago hartu ahalko
lukeena
zainetako tintaz idatzitako maitasun gutuna

AMARRATUTA

udazkenero nago
nire hilkutxari amarratuta
itoa harkaitz bati bezala
agurea gaztaroari bezala

erotu egiten gaitu zaratak
zorabiatu arritmiak eta presak
naretasun erregaitzez
ereiten ez baldin badugu
isiltasun hazi gehiago
elkortu egingo zaigu
berdatu ezinean urtaro gehiegi
eman dituen larrea

egunez egun
desio zaharraren legera
garen iragankortasunean
uju egiten dugu erruz
dagoeneko lur-gaina
lur-azpia balitz bezala

eta urduritasunaren zipriztinetan
baldarki ispiluaren korneak aldatu
ilargiaren distira suntsiezinean
egunkari paranoikoak
bilakatzen dira ametsak
iluntasun itxia ebanjelio modernoak
erbi itsutuek ezin ikus ditzakete
gorputz gorrien aho hegalariak

banbuzko sehaska eta
ilerik gabeko panpina
hankamotz irribarretsua
aurkitu ditu arloteak zaborretan
euriaren zain segitzen du
buztinezkoa dirudien
nire begitarte arrakalatuak

itsaso zakarrari amarratuta
dago udazkenero
nire hilkutxa

BEHIN ETA BERRIRO IKUSIKO DITUZUN PELIKULETAKO POSTERRAK

Hau ez da koadriga lasterketa bat; hau ez da «Aizak hi!, egintzak nire lana nire partez!»; hau ez da irrati berri bat erosiz gero egunez egun entzuten dudana aldatuko dut; hau ez da nire ohiturek ez naute definitzen eta beste edozein aldetara begira dezaket eta ez dut azalpenik eman behar eta zu eta zure inguruko-entzat bizkorregia naiz, eta irudi batek mila hitzek baino gehiago adierazten du, eta zenbait agiri ahaztu ditut etxean eta orain banoa, agur. Hau ez da tipo tristea eta enigmatikoa naiz eta nire malenkonia erromantikoak hilezinezko barne-arrastoen ondorioetatik, bizipenen azkazal zorrotzetatik, behazunetik, desamodioen injekzioetatik salbatuko nau —eta berdin ni neu nigan izatearen eta besteen aurrean zein besteengan izatearen faktuari datxekien arduretatik—; hau ez da nire ohea beti egongo da emakumez beteta, plazerez gainezka, eta nire galtza bakeroak gasolio-txiskeroez. Hau ez da lehenengo tiro egiten dut

eta gero galdetzen; hau ez da Intxaurrondoko kuartela baina ezta ere aldiko *Big Brother* saioko luxuzko etxe kontratxapatua, ezta ere talk show dekadente okaztagarriaren agertoki nazkantea, garaien adierazgarri dena eta bere biztanleena, gu geu garen horiek, eta gu geu baino beste inor ez. Hau zure eta nire bizilekua da, eta gurea ez dena, eta gure kaleak da eta gure lagunak da, eta gure etxekoak, eta maite ditugun pertsonak, eta beste aukerarik gabe beraien kontra su eta gar borrokatzea suertatu zaigun jendea, gehi milaka hankabiko, eta ekidin beharreko —osasun arrazoiak medio besterik (eta bereziki) ez bada ere, buru-higienea dela eta, espirituala— zapalkuntza ibiltari-hiztun tiranoa; hau gu zibilizazio basati bitxizitalaren erdigunean da, beraiek eta handituz doan botere digital infinitua, ezkutuki agerian, ageriki absentea, deabruaren trikimailu zaharra, esan ohi dutenez, edo antzeko zerbait edo oraindik okerragoa, barne-muin eta haragi gu geu ezinbestean hemen eta orain; hau da gure hezur plastifikatuak eguzkitan karramarro gorri distiratsuez betetako igerilekuaren aldamenean, karramarro erabat zaporegabeak ekoizpen super-industrialeko negutegietako sagarren gisakoak, zoru baldosatuaren gainean gure buru baldosa-

tuak, eguzki baldosatua gizaki baldosatuentzat egunetik egunera are eta ilunagoak, hutsalagoak, erigarriagoak, damutuagoak, barregarriagoak, buru otzan karratuak dituzten borrero paranoikoak aparteko ordainsaria eskatzen, sortzetik dituzten kaputxen gainetik dotorezia martirizatzaileaz aristokratikoki ikusezinezko modu eta praktikan enkaputxatuak. Hau ez da Delfosko orakulu kasino bihurtua, eta pitonisa ballarak larunbat gauetan beraien buruak trantzera eraman arren, eta makina bat hegaztiri erraiak ateratzen dizkiogula ere, hemen, Las Vegasko auzune periferiko amaiezinetan, sekula ez da izango behar adina gogobeteko gibelik irakurri eta ulertzeko, irakurri eta ulertu, irakurri eta ulertu. Botikak itxita daude eta ez dakit nola josi gaurko zauri sakona.

Hau ez da «Errotondaz nahastu egin naiz, sentitzen dut, dei nazazu beste egun batean, niri sudur-puntan jartzen zaidan egunean»; hau ez da masifikazioak ezkutatu eta sendatuko du nire ahulezia pertsonala eta indibiduala; hau ez da «Ei!, goazen urez betetako puxikak botatzera bakarrik bizi diren agureen etxeen kontra, eta agian ilunabarrean perdigoi batzuk ere bai». Hau ez da legioko ahuntza selfie bat ateratzen;

hau ez da *Bostak kanpinean* ezta ere *Bostak primeran dabiltza* eta are gutxiago *Bost malapartatuak Iruñeko jaietan neska bat nola bortxatzen duten bideoz grabatzen*; hau ez da guayegiak gara edozelako legek —idatzita egon edo ez— uki gaitzan; hau ez da «Lepoa moztuko dizut» eta kito. Hau ez da eskuko ordenagailu berria behar dut sei hilero, smartphone berria lau hilero, bikote berria bi hilero segidan nigandik baztertzeko; hau ez da pentsamolde nagusi hedatuak goitik behera finantzatutako publizitateak sostengatzen duen moda eta iritzi aldizkaria, zeinari esku zuria miazkatzen diozun, begiak saltzen dizkiozun, barnealdartea entregatzen; hau ez da argazkiak ikusten ditut soilik eta mezuak besterik ez ditut irakurtzen. Hau ez da egunero Sarajevoko liburutegia erretze jokoa; hau ez da esku bat jaurtitzen dut baina harriak bestean gorde edo antzekorik; hau ez da gehien oihukatzen dudanez ni neu naiz alpha masculum goitikoa (egunerokoan elkarrizketa bat izatea zertan datzan ez badakit ere). Hau ez da minbiziaz, alzheimerraz, eta alboko esklerosi amiotrofikoaz ere libratuko naiz ni, eta beste gainontzeko gaixotasun terminalez, edozein dela ere, eta nolanahiko beste gaixotasun kroniko bat sorraraz dezakeen sufrimenduaz eta minaz li-

bratuko ere, ze nire urrezko hedonismoan korazatuta nago, besteak beste, ezinbesteko nire crossfit, electrofitness, kick boxing eta cardio streaptease saioei esker, eta nire nutrizionista pribatuak eta espirulina dosiek zaintzen nautelako, eta nigan soberako glamourra daukadalako inolako gaitzek nire organismoari kalte eragin diezaion, nire erabateko presentziari, beti izango naiz mota orotako birusetatik libre, infekzio eta sindrome guztietatik, eta nire dealerrak kale gaineko substantzia arrunt faltsutu ezaxolak baino nahasgabeagoak direnak (horrexegatik ere garestiagoak) ekartzen dizkidalako, eta hau beste inbertsio bat da, edozein kirurgia estetiko bezalaxe, beti ere salbu egongo naiz edozein auto istriputatik, ez bainaiz zorigaiztoko halako sareetan erortzen denetakoa, ezinezkoa, badakit nire burua zaintzen, ez beste batzuk bezala, eta nire ondorengoei inoiz ez zaie deus ere gertatuko. Hau ez da berorrengandik desitsatsi gabe urteak daramazun bideojoko hori, eta ez da egunetik egunera harrapatuagoa zaituen apustu-etxe digitala; hau ez da sare sozialen gezur arin alaia; eta ez da nire soslai hoberena, exhibizionismo simulatua, eta zaborra ezkutatzen dut, eta ez da ea nork duen luzeagoa, edo ea nork dituen tenteagoak eta desiraga-

rriagoak, eta ez da gurasoei lapurtzen diet eta lagunak engainatzen ditut, eta beti lortzen dut nahi dudana. Hau ez da heziketa txorakeria hutsa da ez baitu deusetarako balio eta, gainera, nik dagoeneko dena badakit eta nire kredoa berehalako utilitarismoa da. Hau zu zara zure bizitza alferrik xahutzen eBay-en —edo arima txikientzako biltegi erraldoiren batean— erositako beste produktu bat gehiago izango bailitzan; hau harrokeria eta banitatea da, desustraitze eta kontsumorako klon perfektuak sortzen, eta jada dozenaka ahotan erabiliak izan diren txotx lerdetsuekin eraikitako monumentu gurgarrien distira morbidoa, agintearen beira iluneko dorre txundigarriak oinekoen zaurgarritasunaren oroitarazlea. Sor dadila itzala! Sor dadila itzala mirespen moduan! Hau zure hibrido okerrena bihurtzen zaituen makineria hobeezina da, parrillan dagoen zeure haragizkotasunaren birtualtasun propioan. Hau, esan dezagun zeharka ibili gabe, zure heriotza festaz jantzia da, maskarak lurrean; zu hilerrirantz geldiro bidea egiten da hau. Hau da ahulegia izango zara dezepzio, engainu eta desilusio itzelenek gainditzen zaituztenean. Hau ez da jokotxo makiavelikoak Silicon Valleyn, eta Apple eta Microsoft eta Google eta Facebook eta Instagram

eta Twitter zure burmuineko atalik zaurgarrienean mokoka, eta zure izatearen izatean, eta zure diruzko eta denborazko eta emoziozko baliabideen erabileran zein erlaziozkoetan zure gainontzeko hurkoekin eta ingurunearekin, mundu naturalarekin zein komunikazio deskrematuarekin; hau, batez ere, zure garun-zoparen xurgapen absolutuena da, sotiltasun eta sofistikazio maila handienera eramana, goieneko kontrola da promesak eta irribarreak medio, eta oraindik ere zure ikuste mugatuak atzamarka lezakeena baino askoz ere gehiago. Hau da soma berriak ez ditu zure atsekabe zaharrak desagerraraziko. Hau ez da diskurtso hanpurutsuek eta jarrera pedanteek ospetsuagoa eta onartuagoa egiten naute eta, ondorioz, etengabe jarraitzen dut artifizialtasun degradatzaile horren askatik edaten, eta beraz hausnartzea, sakontzea, erdi-egiaren baten bilaketa, lerdoen eta pertsona aspertuen gauza da; hau ez da zenbat eta azkarragoa hobe, kamisetak zenbat eta estuagoak hobe, ilean zenbat eta gomina gehiago hobe, zerebroan zenbat eta zakar gehiago askoz ere hobe, zenbat eta handiagoa izan ukitzen nauen zaldi garailearen itzalaren ilusioaren zatia hainbat hobe, eta horretan nabil. Hau nire gainetik dauden kariengatik sakrifika-

tzearen justu kontrakoa da; hau da ez dut yaterik baina edukiko banu bezala ibiltzen naiz munduan barrena itsasoaz deus ez dakiten nire *nautiko* politekin. Hau ez da niri dena bost axola eta ororen gainetik nago eta gainera «galtzaile» kalifikatzailea gehitzen diot nire hiztegiari edozein estatubatuar arrunt eta erdipurdikoren gisara zu gutxiestearren eta handikeriaren gogo-hoztasunez esku bakar batez apartatzearren, ez baitzara gai elbarrientzako erreserbatutako tokian aparkatzea bezalako lorpenak gauzatzeko, eta barre egiten dut, eta zuk tontoaren antzera, hots, «galtzailearen» antzera, hiriari bueltak ematen jarraitzen duzu; hau ez da uneko bideo arrakastatsua, azken lerdokeria birala pantailaz pantaila dabilena, eskuz esku, garunez garun, hortzaduraz hortzadura, ergelez ergel, borondatez onartutako, besarkatutako, zornea bailitzan; hau da kirtenkeria, kretinismoa eta edozein motatako entretenimendua gehitu beharko diozu zure denborari zure denboraz —zutaz— pentsa ez dezazun. Hau ez da beste egun bat gehiago audientzien mailaren baitan kalibratua, begibakarrentzako nire telebistaren pantailaren tamainaren eta teknologia-kalitatearen baitan; hau ez da beste egun bat gehiago eguzkitan; ikuskizuna hasi baino ez da

egin, horixe da hau. Hau ez da «positivo» edo «afirmativo» erantzutea sinpleki «bai» edo «hala da» beharrean, eta ez da ezta ere «negativo» erantzutea garbi eta besterik gabe «ez» edo «ez da horrela» beharrean, honela *wicked cool!* senti zaitezen erabat; hau ez da zibilen artean militar bat naizela ustean nago zuek azpian hartzeko eta posible bada zuek umiliatzeko eta beti ere zuen gainetik nabarmentzeko, ez zara suharri guztiak baino bihotz gogorragoa duen tipoa uste horretan hartzen baduzu ere atsegin kale eta tabernetako txiklezko elkarrizketetan eta honela agertzen bazara ere sexu-topaketa amorfoetan, parodia bat besterik ez, propagandaren jomuga aski erraza, bat gehiago beste egitasmo pseudogizatiarra bihurtua, ganoragabeko arrunten argi-foku itsugarriaren, haluzinagarriaren azpian, sistemaren lastozko alfonbran desfilatzen ikusten zaituen sistema, eta jaiotzen eta hazten ikusi izan zaituena, eta jarraian egunak joan egunak etorri barneak agortzen ikusi ere, aukeraz aukera, okerbidez okerbide, zoraldiz zoraldi, hutsegitez hutsegite, ilunaldiz ilunaldi, makurki, alfer-alferrik, aldez aurretik jakiniko txepelkeria hutsal tristean.

Hau ez da bussiness class hegaldi bat eta ezta ere low cost hegaldia; ez da super-heroien komikia; ez da «¡Jimmy Jimmy se va a chutar!» eta hemen ez da deus ere gertatu izan turismoari emana den hiria baikara, hilobi-isiltasuna eta auzokoak diren ama ez gutxi betiereko samin definiezin eta ikaragarrienera jaurtiak eta hobeto zainduak Bermeon hemen baino; hau ez da rol-jokoa eta antzerki-lana; hau ez da haizerrotak eta zaldun ibiltariak eta replikanteak beraien memoria zatia bilatzen eta desiratutako euren odol propioa jariatu nahian, une honetara iritsirik demostratu beharreko ezertxo ere ez da geratzen. Hau ez da biomekanika eta biogenetika hitzaldia goizeroko gosari transgenikoaren momentutik gure buru kiskaliak oheratzeko orduraino; hau ez da tatuajeez aspertzen zarenean zure gorputzean txip absurdoak jartzea hautatuko duzu arinki, osasunaren urgentziarekin ezer ikustekorik izango ez dutenak eta, aldiz, dena zu entzutetsuagoa egitearekin, beti azken modan!, beti azken modan!-ek suntsitu egingo zaitu, toxikotasun anizkoitzaren gure parke tematikoan egunero neurotransmisore gero eta edentsuagoak; hau da nire bihotza, litografia-lamina batean taupaka.

Hau ez da nostalgiak saldu egiten du, ez da diseinuak salbatu egingo gaitu eta dj-ak sekulako artistak dira (anonimoak izateko asmoz sortu zirenak; egin dezagun barre); hau da txotxongiloak maneiatzen dituen espeziearen eskuak eta burmuina etenik gabeko egite eraginkorrean, eta telebista-ereduko jokaerak, enperadore tentelaren otzantasuna; hau da Maslowen Piramidea bere oinarrizko estratuetan izoztua eta agur egiazko edertasunari eta gorentasunari eta gizakiaren nortzeari; aski da behingoz hainbeste zarata gorgarri-gaizto-ustel-despotaz, horixe da hau: aski gogaipeneraino erabilitako klixeez, tranpa-lengoaiaz, gelatina linguistikoz, bukle jarraituan ematen diren mezu publiko errepikakorrez, txiste txoroez eta batere kaltegabekoa ez den komikotasunaz; ENTZUN ZEUEN BURUAK ARNASA HARTZEN!, entzun behin bakarrik bada ere, pertsona bakoitza behin besterik ez bada ere. Aski da zuen haize-orratzak diren buruez baliatzeaz, fruta usteleko nahimenez baliatzeaz, elikatzen duzuen txantxa galgarri honetaz. Isiltasuna. Isiltasuna. Isiltasuna. Garaia da entxufea gainetik ken dezazuen eta zeuen oinetan tiro egin, burmuinean, kortex zerebralean. Isiltasuna. Isiltasuna. Isiltasuna. Jaso itzazue hautsontziak, irentsi zigarrokinak, emadazue espazio

eta bake apur bat. Hau ez da poker mahaia; hau erruleta errusiarra da, eta jokoaren arauak aldatu egin ditut, eta zurea den errebolberrarekin apuntatzen ari natzaizu.

Hau ez da mukiak kenduko dizkizut, hau ez da errege eta erreginen jabetzako lurrak; ez da ezta ere arrosa eta urdin argia koloreen esleipena; ez sozialismo errealaren begi fluoreszenteko satorren xake partida; ez Chicago Boys, haiek afaldu aurretik Pinochetekin txiletarren lepoen gainetik sokasaltoan dibertitzen; hau ez da torturaren ekonomia gure historiaurreko leize-zuloetan; ez da arkitektura komunistaren eraikin tzarrak lila argiz margotuak; ez da panoptiko dualean aurki daitekeen bazter libre bakarra, ez baita halakorik existitzen, halako dimentsiorik ez dago; hau da beti beranduegi iristen da katarsia; hau da dolua eta maitemintzea kontu berdinki pertsonalak dira biak; hau da kostaldeko muga bikoitza honetan ezin ditut gure etxe atarian P Lerroa zenaren bunker frankistak ez eta gure etxe aldamenean Atlantikoko Horma izandakoaren bunker naziak formolez betetako ontzietan sartu eta hauek behingoz eta betirako itxi, ezin baitut ariman inkrustatutakoa erraustu, gertatu-

takoaren desagerpena asmatu; hau da gerra desberdinek injustizia berdinak eta biktima berdinak sortzen dituzte; hau da, ez, ezin ditut gure historiako esklaboak askatu, ezta ere bortxazko lanetara behartutako presoen zorigaitz miserablea arindu; hau da segundo honetantxe bertan nazkatuta nago, eta bada ezagutzen dudan jendea ez litzaidakeena bereziki axola izango gaur bertan desagertzea. Hau da lesioak dituzten burmuinen museoa, horixe da, horixe gara.

Hau da kodeinak ez dit oinazea arintzen, ez eta aski gertatzen oxikodona, pregabalina, topiramatoa, retigabina edota opiazeo desberdinen zerrenda luze amaiezin neketsuko botika narkotiko horiek; hau da nire nerbio-sistema zentrala kaltetuaren informazioa gaizki ulertzen dute garuneko nozizeptoreek eta dagoeneko ezin dut gehiago minarekin, minarekin, minarekin, urteetakoa den oinazea; hau ez da irribarre gehien egiten duen hura da zoriontsuena; helduak bailiran hitz egiten duten haur pedanteak baso itxi batean laga behar lituzkete da hau, beraien guraso harroputzak oihanean, larrugorritan, tresna teknologikorik gabe eta desodoranterik gabe, kreditu-txartelen ezgaitasunarekin besapeetan, bitxirik gabe, dis-

kurtsorik gabe, lehen aldiz bihotzak gordinik eskuetan; hau da ni, ni, niaren etapa amaiezin batean uneoro kasketaldietan garrasi egiten duten haurrak bizi guztirako beraien gurasoekin batera giltzapetu behar lituzkete, garrasi ere egiten duten gurasoak, eta murmurikatzen dutenak, eta modu selektiboan konspiratzen dutenak, ni, ni, niaren etapa agorrezinean; hau da plastilina puska batek nahikoa izan behar luke bakoitzarentzat, eta maitasun gutunen bat edo beste; hau karrakelak eta kristal hautsiak da; hau da ez zaitez itsuki tematu Herioren dantzara gorputz mardul guztiz osasuntsuarekin iristearekin; azaletik eta bistakotik haratago BIZI ZAITEZ!, BIZI ZAITEZ!, BIZI ZAITEZ! da hau, dogmetatik eta dogma baino ez diren antidogmetatik haratago; zortea gaizki banatuta dago da hau, eta «zorte» hitza gehiegi baliatzen dutenak beraien desgraziak —maiz berekoiak diren okerreko erabakien emaitza zuzenak— gehien eragiten dituztenak dira ere bada hau; tunel luzera eramaten zaituzte bidezidorrek; hau da egiteak eta ondorioak, eta ardurek ez dute modu ez-kaltegarrian flotatzen kontzeptu abstraktuen unibertsoan; hau zure orduak da, zure minutuak, zure aukerak eta hautaketak, zure labanak, zure fruituak, zure loreak, zure lokatza, zure

putzuak, zure beldurrak, zure kantak, zure isiltasunak, zure maitasuna eta zure gorrotoa, zure giltzak, zure ateak, zure leihoak, zure bertigoak, zure eskailerak, zure kateak, zure belaunak, zure eskuak, zure ezpainak, zure begiak, zure misterioak, zure presentzia eta ikusezintasuna, zure pala eta arrastelua, zure jendea eta hauen izateko arrazoia, zure borroka eta zure ametsa da hau guzti hau: behin eta berriro ikusiko dituzun pelikuletako posterrak.

Oinatzak basan jarraitzen du.
Ilargiaren argipean margotzen dihardut.

ARPOILARIAREN GOGOETA

Errealitate iheskorrak
baditu halako keinuak niretzat,
betiereko uneak,
esku bete toffee gozoki
nigan bidaiatzen darraien haurrarentzat.
Harkor bizi naiz,
adi behatu eta bat egiten dut
aurrean daukadanarekin,
eta aldi berean itzuri egiten ikasi dut
objektu, egoera, jendearen zepoei.
Sentimendu zehatz bilakatu naizenetik
zaindu beharra daukat
naizen sentimendu hau.
Nire izantza irauliz
maite ditudan pertsonetan disolbatzen naiz,
halakoetan bizkortu egiten da existentzia
gainditzen nauen arteraino.
Tinko irauten dut asfalto puskatuan
eta nire itxaropenak baditu kolorezko klerak
zementuzko edozein bisaia

atsegin zaidan sorketan eraldatzeko.
Ez naiz ausarta, ez naiz inozoa.
Iheskorra da, bai, errealitatea
eta ni ere, neure erara,
halakoxea naiz.
Santutegia naiz batzuetan
ozeanoa naiz batzuetan
krater saihetsezina
lubaki zeharkaezina
behatzen arteko hondar epela
ezpainen arteko euri xehea.
Bizitzaren amaiera naiz batzuetan
zauria besteen arimetan
eta ustekabeko sendabidea
dardararik egiten ez duen
zalantzatan galtzen ez den
esku sinesgarria
noizean behin.

THEATRUM ANATOMICUM

gugan baina ez gugan bakarrik
helburu eta arrazoirik gabeko besoen gisara
pixkanaka baina ziur erortzen da gaua
ikatz eta urrez betetako amets-zaku erraldoia
izara maiztuez bildu ezinean nabilen ilargi beltza
arima galkorren larbez betetako sarea
anatomia urdurien ebakuntza-mahaia

baserriko teilatuan eserita
gure amonen amonek
izarrak zenbatzen dihardute
antzarek zalaparta osoan karranka egiten dutela
dozenaka mila bizirik lumatzen ditugula
eta gu isilik atzamarrei begira ume gorrak
baikinen
beirazko begien zuritasun aratzeko humanitatean
gauaren zerrak larrutzen gaituen bitartean

URRUN

ez zaitez ibili zure buruko animalien gainetik
ez ezazu hain arinki ireki zure bularreko kremailera
ez orakulua kontsultatu koma egoeran bizi zarenean
ez moztu zure belardia beste inoren segaz
ez eraman berro-zopa eztarrira beroegi dagoela
ez trukatu erradiografiarik txarolezko
historiagileekin
ez ordularirik ebatsi denboraren joanari
eta laga gogoeta askeen fluxuari
eraman zaitzan
urrun

ARGIZAIOLA

ezpalarta bularrean
ubarroia arrokan
bakardadea beti da
amu zorrotza

ilea erori zaio
ilargi beteari
itsasoaren azalean
ez da orrazirik

arima dantzan dabil
deabruaren kulunka
isilean amarratzen dut
gure txalupa

ubarroia arrokan
ezpalarta bularrean
argizaiola da
nire bihotza